

Uharte-Arakilgo Ardi-zakur Lehiaketa

Jose txo Billabona eta Xarpa, berriz garaile

Leitzar honek bigarren urtez segidan irabazi du Uharte-Arakilgo ardi-zakur lehiaketa ospetsua. Iaz bezala, Xarpa zakurrarekin parte hartu du Jose txo Billabonak. Aurten ez omen zuen irabazterik espero: «lehen go euberrietan ardi batek jo zuen zakurra, eta geroztik, ikaratua zegoen». Gainera, ardi zailak suertatu omen dira aurten Uharte-Arakilgoak, zakurra hurbildu orduko bueltaka hasten zirenak. Lehiakide batek ez zuen lortu ardiak hesiaren barrenean sartzea ere. Jose txok esperientzia haundia du zakurrak hazten, eta bere ustez, «zakurra ez da inoiz jo behar, ardia atzetik hozkatzen ez badu behintzat».

ISP 3



4-5 Erreportaia: Bidasoako II. Zinemaldia

Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatua, aste honetan Bera eta Donezteben, eta heldu den astean Irun eta Hendaian ikusgai izanen dira Bidasoako Filme Laburren II. Zinemaldian parte hartuko dute 35 filmak. *Urrezko Iratzea* Beran emanen da irailaren 18an.

6 Iritzia: Baimenik ez Bertizko zalditegiarentzat

Pedro Ziga, Bertizko azken nagusia izan zenaren testamentuan oinarrituta, Jose Mari Galarregi Oiergiko alkateak Bertizen zaldiekin ibiltze agalerazi die BKZ-koei. Hauek erabakiaren kontra protesta egin dute berriki, eta alkatearen jokabidea salatu.

29 Herriz Herri: Iruritako Garagardo Besta

Buruilaren 18an arratsaldeko 7-etan hasiko da aurtengo Garagardo Besta. Musika eta garagardo desberdinak entzun eta probatzeko aukera prestatu dute Iruritako Gazteek. Ttipi-ttapak 10 sarreara zozketatuko ditu.



Bera.

- Etxe bat berritzeko.
- Etxea 14.000 m²ko lur-eremuarekin.
- Bi pisu salgai.
- Pisua (jogogailuarekin) erosi nahi dugu.
- Bajera salgai erdigunean.

Lesaka.

- Etxe elkar-atxikiak.
- Nabe-pabiloia, 400 m²koa, salgai edo errentan emateko.

Etzalar.

- Etxe elkar-atxikiak. Azkeneko biak.
- Baserri pareia salgai.
- 30.000 m²ko lur eremua.

Arantzeta.

- Pisu mobleztatua.
- Pisua salgai, garaje, soto eta ganbararekin.
- Etxea, bizitzeko jartzeko prest.

Igantzi.

- Etxea salgai, lur-eremu aunitzekin.

Sunbilla.

- 57 m²ko bajera salgai.
- Baserria salgai, bere lur-eremuarekin.
- Lur-eremu eraikigarria salgai, herrian bertan.
- Pisu mobleztatua errentan emateko.

Doneztebe.

- Pisua salgai herrian, bizitzeko jartzeko prest.
- Pabiloia errentan emateko.
- Bajera batzuk salgai.

Elgorriaga.

- Pisua bere ganbararekin, berogailuarekin.



ADOS

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 948 451 841 • 607.978 656

e-mail: julizu@zaros.com

Parrokia 9, bajeran • **DONEZTEBE**

- Pisua bajera haundi batekin.
- Pisua errentan emateko.
- Borda bat salgai, lur-eremuarekin eta ongi kokatua.

Ituren.

- Azken bi pisu berriak salgai.

DONEZTEBE:

- **Babes Ofizialeko Etxeak** (Osasun Zentrokoak):

Azken bi apartamentuak salgai.

- **Udaletxe ondoan:**

Azken bi pisuak salgai.

- **Zine ondoan:** Azken bi pisuak eta bajera bat salgai.



- **Aparan:** 375 m²ko azken pabiloia.

- Lur-eremua salgai, etxea egiteko.
- Etxe bat lur-eremuarekin.

Zubieta.

- Etxe haundi bat salgai.

Eratsun.

- Etxe bat salgai.

Lekunberri.

- Pisu batzuk, lur-eremu bat eta

etxe batzuk.

Donamaria.

- Lur-zati eraikigarriak salgai.

Igurin.

- Lur-eremu pareia salgai.

Beintza.

- Lur-eremu batzuk salgai.

Labaian.

- Lur-eremua salgai, ongi kokatua. Eraikigarria.

- Pisua salgai.

Legasa.

- Lur-eremu pareia salgai.

- Pisu pareia salgai, merke-merke.

Mugairi.

- Pisua salgai.

- Lur-eremu eraikigarria.

Irurita.

- Lur-eremua salgai, etxe bat egiteko.

Elizondo.


- Pisu hagitz polita salgai.

- Pisu batzuk errentan emateko.

Erratzu.

- Etxe bat bizitzeko jartzeko prest.

- Baserri-borda erreformatzeko.



LEIHO ETA ATEAK

LEIHATE

GAZTAÑAGA HERMANOS, S.L.

IRUN

PINAR, 2 behea

Tfnoa.: 943 61 41 56

DONOSTIA

MAESTRO SANTIESTEBAN kalea


Tfnoa.: 943 46 96 22

✓ BARNETIK BERRITZEA:

- Barneko atekak
- Ate blindatuak
- Zolak: Tarimak eta tarima flotanteak

✓ PVC eta aluminiozko leihoak

✓ Armairu enpotratuak



DATUAK.....

❖ Iaz bezala, «Xarpa» zakurrrak irabazi du Uharteko Arakilerako ardi-zakur lehiaketa.

❖ Maileta baserriko artzainak 25.000 pezeta, guardasola, zakurrarentzat pentsua, "artzain elektrikoa" eta kopa eramanez sari moduan.

❖ 45 urteko leitzar honek eskarmentu haundia du ardi zakurrak hazten: «motibo on bat baldin bada bakarrik jo behar da zakurra, ardiei atzetik hozka egiten badie, adibidez».

❖ Hemengo ardi zakur arraza asko ari omen da jeisten, eta horregatik txapelketa batzutan Collietatik bereiztea erabaki dute uda honetan.

👉 **Jose txo Billabona** Leitzako artzaina

"Fabrikara ezik toki guzietara eramaten dut nerekin zakurra"

AURTENGOAN EZ OMEN ZENUEN IRABAZTERIK ESPERO...

Ez. Lana eginen zuelabai, baina horrela ibiliko zenik ez. Lehengo eguberritan ardi batek jo egin zion eta geroztik zakurra ikaratu zegoen. Lehen ez zuen egiten bainan gero, saingaka hasten zen ardiei hurbildu orduko. Zergatik? Beldurra zeukalako.

Uharteko Arakilerako beldurra neukan. Itzulia eginen zuelabanekeen, fina baita, baina gero ardiekin...

GAINERA AURTEN ARDIEK LAN HAUNDIA EMAN DIZUETE, EZTA?

Bai. Nik urte mordoxka daramakit honetan eta orain arte ikusi ditudan zailenak izan dira, bizenak. Zakurra hurbiltzen zenean bueltak hasten ziren, eta zakurrak ezin bere lana egin inola ere. Esaten dute txapelketarako zakur bizia behar duela, baina ez dakit nik, horrelako ardiekin lasaia bada hobe. Nerea oso lasaia da, beharbada mantsoegia.

Oso umila da. 100 metrora oihu egiten badiozu bertan geldituko da, eta ez da abiatuko esan arte. Hori jaiotzetik heldu zaio. Gauza batzuk nikerakutsi dizkiot, baina aisa gelditze hori eta umiltasuna jaiotzetik heldu zaio.

▶ *«Oso umila eta lasaia da Xarpa. Ehun metrora oihu egiten badiozu bertan geldituko da, eta ez da abiatuko zeuk esan arte. Hori jaiotzetik heldu zaio.»*



Jose txo Billabona leitzarra eta «Xarpa» zakurra, aurtengo irabazleak.

TTIKI-TTIKITANDIK ZUK ENTRENATU DUZU XARPA?

Urte terdi zuen arte librebiltzen zen, eta urte terdirekin eramanez Uharteko Arakilerako lehen aldiz, arditan batera ez zekiela. Orduan ez zuen deus egin, baina iaz, berri, lehendabizikoa izan zen.

Nik beti nere ondoran ibiltzen dut, belarre-

tara joaten naizenean, edo egurretara... fabrikara ezik toki guzietara eramanez dut nerekin zakurra.

ZAKURREI GOXO-GOXO ERAKUTSI BEHAR OMEN ZAIO, ETA BEHIN ERE EZ JOKA. ZUK ZER USTE DUZU?

Zakurra ez da inoiz jo behar, motibo on bat baldin bada bakar-bakarrik. Ardia hozkatzen badu beharbada bai, baina atzetik egiten badio bakarrik. Muturrean hozka egiten badio ez, ardiak ikusten duelako eta defenditzeko aukera duelako.

AURTEN POLEMIKA IZAN DA COLLIEAK ETA ARTZAIN ZAKURRAK BATERA ARITU DIRELAKO ZENBAIT TXAPELKETETAN. ZU BEREIZTEAREN ALDEKOA ZARA?

Ez dakit. Neri zakur guziak gustatzen zaizkit, artzain zakurrak gehienbat. Esan zuten txapelketa haundietan bakarrik bereiziko zituztela, gero herrieta-ko txapelketetan denak nahasita ibiliko zirela. Hemengo ardi zakurra asko ari da jeisten, eta arrazari eusteagatik bereizten dituzte txapelketa batzutan.

TESTUA:
ASIER GOGORTZA
ARGAZKIA:
JAGOBA MANTEROLA



FILME LABURREN LEHIAKETA

Zinearen xarma Bidasoaldean

Aste honetan Bera eta Donezteben eta datorren astean Irun eta Hendaiaren ikusgai izanen dira Bidasoako Filme Laburren Bigarren Zinemaldian parte hartuko duten 35 pelikulak. Bertizko Turismo Partzuergoak, Cederna-Garalur erakundearen eta Irun eta Hendaiako Udalen laguntzaz antolatutako zinemaldi honen sari banaketa irailaren 18an egingen da Berako Kultur Etxean, arratseko 9etatik aitzinera. Leku berean, «Zinegileak: Euskal Herriko zinearen historia, 1896-1998» izeneko erakusketa interesgarria zabalik dago irailaren 19a bitarte. Zinearen xarma ailegatu da Bidasoaldera.

TESTUA : AITOR AROZENA
ARGAZKIA : ONDIKOL

Urrazko Iratzea eta lehendabiziko sari horri dagokion milioi pezetaren jabe egiteko asmoarekin 35 filme laburrek parte hartuko dute Bidasoako II. Filme Laburren Zinemaldian. Diru sari horren erdia Bidaso edo Bertiz inguruan grabatuko den filme berri bati bideratu beharko zaiola kontuan hartuz, Bertizko Turismo Partzuergoak, ekitaldiaren antolatzailer nagusiaren asmoa eskualdea nolabait suspertzea da. Ez da, ordea, lehiaketa honetako sari bakarra izanen.

Bigarren saria 300.000 pezeta eta Zilarrezko Iratzea izanen da eta bertze lau sari berezi emanen dira, Brontzeko Iratzea eta 250na mila pezetarekin: Gai naturalistikoak, ekologikoak, etnografikoak, ingurugirokoak edota paisajistikoak hobekien jorratzen dituen filmeari; bake eta giza baloreak modurik hoberean lantzen dituen filmearentzat; Akitania, Euskadi, Nafarroa edo eskualdeko egile batek eginiko filme hoberearentzat eta, azkenik, aktore onenarentzat.

Sari hauek emateko, zinea eta kulturarekin harremana duten pertsonak osatuko dute epaimahaia: Alejandro Arizkun Nafarroako Unibertsitate Publikoko katedraduna; Alberto Cañada zine kritikaria eta historiagilea; Jose Antonio Cruz disenatzaile grafiko eta Nafarroako Mendi Mahaiaren koordinatzailea; Begoña del Teso, Diario Vasco egunkariko zine kritikaria; Alicia Ezker, Diario de Noticias egunkariko kultur orrialdearen arduraduna; Fran Ezkurra; Carlos Mugiro, zine zuzendaria eta Miguel Pruaño, NASA Servicios Audiovisuales produktorako kidea.

Zinearen historiak mendea bete du Euskal Herrian

Zinea XIX. mendearen bukaeran sortu zen Frantziako Lumiere anaien eskutik eta gaur egun oraindik mundu osoko milioika ikusleren interesa sortzen du. Euskal Herrian berriz, 1896ko udan hasi ziren zine-emanaldiak, Biarritzen Lumiere zinematografoa aurkeztu zenean. Hiri eta urte berean filmatu ziren lehen irudiak, *Les Rochers de la Vierge* zintakoak. Garai horretan, bertzelako aparatuak ailegatu ziren lehen aldiz Donostia eta Bilbora. Iruñean, 1896ko urriaren amaieran, Alberto Duranek bere *kinematografoa* aurkeztu zuen Principal antzokian, eta azaroaren lehen Gasteizko Antzoki Zirkora joan zen.

Urte horretatik hasi eta 1998. urte bitarteko euskal zinemaren historia eta zenbait bitxikeria ikusgai daude Berako Kultur Etxean irailaren 19a bitarte zabalik dagoen erakusketan. Asteartetik igandera,

Zinemaldia zine areto egonkorrik gabeko eskualdean

Bitxikeria badirudi ere, zinemaldia antolatzen duen eskualde batean ez dago zinea modu egonkor batean eskaintzen zuten aretorik. Donezteben eta Leitzan negu partean astero-astero eskaintzen dituzte emanaldiak, baina jende gutxi agertzen da. Berako Kultur Etxean aretoa bai, baina emanaldirik ez da izaten normalean. Hori bai, Iruña, Irun, Baiona edo Donostiako zine aretoetara joanez gero nonahi topatuko dituzu inguru honetako ezagunak.

Hau ez da beti horrela izan, ordea. Elizondok gaur egun baino mila biztanle gutiago zuenean bi zine-areto ezagu-

tu zituen: Parrokiarena eta Maitena zinema. 1960. hamarkadan izan zuten prezio-borroka sonatua izan zen: batek pezeta bat jautsiz gero, bertzeak bi. Azkenean, porrotera joan baino lehenago, elkar hartu behar izan zuten. Lekarozko Kolegioan ere, mende hasieratik izan zen zine emanaldirik. Azken urteetan, gainera, proiektore arras modernoak jarri zuten. Garaiko zen-

tsuraren arabera, Maitena eta Parrokiako zinetan pelikula «arras arriskutsuak» ematen zituztenean, Elizondotik Lekarozera gaten omen ziren haurrak pelikulak ikustera.

Doneztebenere Parrokiaren esku egon zen zinea, suak kixkali zuen arte. Gaur egun, leku berean eraiki dute udal zine aretoa. Beran ere izan zuten zinemarrik, Biena zinema, Altzate auzoan. Duela 30 inguru itxi zuten, bertan *sala de fiestas* bat irekitzeko. Lesakan ere izan dira zine emanaldiak duela hamabortz bat urte arte, Beti Gazte elkartearen eskutik, Otxogorriean. Leitzako zine aretoan emanaldiak egiten dituzte oraindik orain neguan. Goizuetan, 300 lagunendako lekua duen zine aretoa zabalik egon zen duela 30 urte arte.



Hector Elizondo aktorea ezagun egin zen «Pretty woman» filme famatuan. Richard Gere eta Julia Roberts protagonista zituena pelikulan, hoteleko zuzendariaren lana bete zuen Elizondok. Abizena eman dion herrira egindako bisitan, bere sustengua eskaini zion Bidasoako Zinemaldiari.

arratsaldeko betatik gaueko 9etara bisitatzen ahal da erakusketa hau.

Eskualdean hainbat pelikula filmatu dira

Gure eskualdeak ere zinearekin zerikusi handia du. Bertizko Laburmetrai Lehiaketako Urrezko Iratzea irabazten duenak bezalatsu, lehendik ere zenbait zinegilek beraien lanak inguru honetan filmatu dituzte. Lander Santamaria elizondarrak gogoratzten duenez, Luis Mariano protagonista zuen «El cantor de Mexico» filmearen irudi

batzuk Lesakako plaza inguruan hartu ziren. Leon Klimowskiren «Llegaron los franceses» filmearen zati bat Lekarozen grabatu zen. Orson Welles zuzendari famatuaren «Campanadas

a media-noche»

filme entzute-tsuaren hasierako irudiak Lesakan hartu ziren eta Kaxerna edo Zabaleta dorrea ageri da. Dantxarriean grabatu zen «El blanco» filma, Fernando Rey aktorearen partehartzearekin. Berrikiago, euskal zineberrian aintzindari izan zen «Hamaseigarrean aidanez» filmearen irudiak Elizondoko Jaime Urrutia eta Braulio Iriarte karriketan hartu ziren. Eraberean, Baztanen grabatu zen Julio Medem zuzendariaren «Vacas» luzemetraia. «La conquista de Albania», «Gayarre» (Jose Carreras tenorearekin), «Fuego eterno» (Imanol Arias eta Angela Molinarekin) edo «Viento de cólera» (Juan Echanove eta Aitana Sanchez Gijon) dira inguru honetan grabatutako bertze filme famatuak. ■



Bidasoako I. Zinemaldia Palmaresa

- Urrezko Iratzea eta 500.000 pezeta filme hoberenari: «*En Medio de ninguna parte*»
- Zilarrezko Iratzea eta 300.000 pezeta, bigarren saria: «*La raya*»
- Brontzezko Iratzea eta 250.000 pta, gai naturalistikoak, etnografikoak, ingurugirokoak edota paisajistikoak hobekien jorrazten dituen filmeari: «*La raya*»
- Brontzezko Iratzea eta 250.000 pta, bake eta giza baloreak modurik hoberenean lantzen dituen filmeari: «*La avería*»
- Brontzezko Iratzea eta 250.000 pta Akitania, Euskadi, Nafarroa edo bertako egile batek egindako filme hoberenarentzat: «*Txotx*»
- Brontzezko Iratzea eta 250.000 pta animaziozko filme hoberenarentzat: «*Okupa*»

Joan den urteko Bidasoako I. Zinemaldiko saridunak, urrezko, zilarrezko eta brontzezko iratzeak eskuetan dituztela.

GAURKOTASUNEKO GAIA

Oierregiko alkateak Bertizen zalditegia jartzea debekatu dio BKZri

Etxeko abereak sartzea debekatzen du Pedro Zigaren testamentuak



Jose Mari GALARREGI
Oierregiko alkatea

Duela urte batzuk BKZkoek pikadero bat egin nahi zuten Bertizen, eta Don

Pedro Ziga zenak ez zuen hori ametitzen. Ni, alkatea naizenez, legea bete eta beteaz behar dut. Parke hori nafar guziena izanik, BKZkoek nahi dituzte horko azpiegiturak probextu euren irabazirako, eta hori nere gainetik pasatzen da.

Testamentuak etxeko abereak Bertizen sartzea debekatzen du, ez zaldirik, ez zakurrik, ez ardirik... garanik ere. Hori bete egin behar da, bertzenaz parke natural izan beharrean parke nazionala bihurtzen ahal delakoz. Nik testamentua ezaguturik badira hiru bat urte. Egiten ahalez ziren bertze gauza batzuk egin dira hori baino lehen, baina guk ezagutu ezkerroztik ez da deus egin.

BKZkoak zaldiekin Bertizen barna ibiltzen direnean jendea kexatu egiten da, kaka han eta kaka hemen uzten dutelakoz, eta natura ikustera etortzen den jendeak ez du kakarik ikusi nahi. Parkearen barrenean zer itxura da hori kanpotarrentzat?

Nik badakit erabaki hauek ez dira denen gustukoak, baina hargitiz trankilegiten dut lo. Bertzalde, harritua nago Bertizko Partzuergoak ez duelako ja erratan. Akaso ez du ikusten izanen nere jokatubidea ona dela?

Garai bateko jauntxoek bezala jokatzeko du, gauzak bere gisara eginez



Mattari ALTZUARTE
BKZ

Hasieratik, 1993an Bertizko zalditegia hartu genuelarik, Galarregi jaunak

debekatu zigun ostatu ttiki bat jartzea ondoan. Gero Nafarroako Gobernuak egurrezko ikuiluak egin zituen, eta Oierregiko alkateak salatu egin zuen Gobernuak ilegalki eginak omen zirelako. Ondoren Gobernuak pikadero estali bat egitea onartu zuen, eta 20 milioi bideratu zituen proiektu horretarako. Hori ere debekatu egin zuen.

Lehen arau subsidiarioak ziren aitzakia, orain, berriz, Pedro Zigaren testamentu famatua. Hor jartzen omen du abereak ezin direla barnean egon. Baina testamentuari begiratuz, Bertizen ez zen deusegiten ahal, ez aparkalekurik, ez artisau-dendarik, ezta sarrerak kobratu ere. Hor hipokresia handia dago alkatearen aldetik. Lehengo jauntxoek bezala jokatzeko du, gauzak bere gisara eginez. Guk, momentuan, zaldiak kentzea erabaki dugu, eta horrekin lanpostu bat edo bi galduko dira. Partzuergoak ere behingoan hasi beharko du eskualderako zer plan turistiko nahi duen definitzen. Bertzalde, gizon hau 100.000 zuhaitz botatzearen alde aterti da, eta zaldia ibiltzea debekatzen du testamentuak hala diolako. Zer erranen luke Pedro Zigak biziko balitz?

Herri bakoitzak bere politika du eta guk hori errespetatu behar dugu



Nora ENETERREAGA
Ber iz Turismo Partzuergo

Gure aldetik, ueste dugu zaldiena bezalako aktibitate turistikoak sortzea

ongi dagoela, baina arazoak sortu ziren kasu honetan. Nafarroako Gobernuak Turismo Sailarekin jarri ginen harremanetan, eta aipatu ziguten beharbada instalazio horien gestioa guri pasatzen ahal zigutela, gero guk subastan ateritzeko. Guretzat arrazones garria zen ideia hau.

Orduan bi aldiz bildu ginen Oierregiko alkatearekin gaia komentatzeko. Akordio batera ailegatu ginen, *hoxe* edo *ixtegi* guziekin ez bazen ere zalditegia subastan ateritzeko. Hala ere, Turismo Departamentuak arazoren bat eduki zuen Lurralde Antolamendu Departamentuarekin eta azkenean ezin izan ziguten gestioa guri pasatu.

Bertzalde, Oierregiko alkateak Turismo Departamentuaren eta Oierregiko kontzejuaren arteko afera zela erran zigun, eta guk ez genuela hortan zerikusirik. Beraz, bai alde batetik zein bertetik kanpogan gelditu ginen, baina ahal genuen guzia egin genuen.

Herri bakoitzak bere politika du eta Partzuergoak hori errespetatu behar du. Ematen du gu gara zerbait egin behar dugunak afera honetan, baina guk ez dugu eskumenik hor nahi duguna egiteko.

Abatea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irijoien.

Zuzendaria: Aitor Arozena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena, Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Maione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Martine Goieche, Frederick Berruet, Elixabet Turria, Garbiñe Maiz, Oskar Xoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...

Primategia: Gertu. Erakunde

Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urzabuzubieta Sarakoudalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

1. Ego Euskal Herria ... 2.000 Pta.

2. Ego Euskal Herria ... 140 Libera

3. Europa ... 3.500 Pta.

4. Amerika ... 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du

☆☆☆☆☆
☆☆☆☆☆
☆☆☆☆☆
☆☆☆☆☆
☆☆☆☆☆

ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jasotzen du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Baztango Mutildantzak.

Hasteko, mila esker TTIPI-TTAPAri aldizkaria interneten jarzteagatik. Urte t'erdia daramat EEBBetan eta nahiz eta etxetik urrun egon TTIPI-TTAPA irakurtzen dudanean bi pausotara nagoela iduritzen zait. Dena den, azkenengo aleko iritziaren saila irakurri dut eta «Baztango Mutildantzak: mutilentzat bakarrik?» galderari erantzuteko beharra sentitu dut.

EEBBetan bizimodu oso desberdina de EHKoarekin konparatuz. Edozein kultura aldaketa txoke haundia da eta kostatzen da bertakoen bizimodua ulertzea. Nik eztabaida aunitz izaten dut bertakoei, ez dutelako ulertzen zergatik egiten dituzten gauzak egiten dituzten bezala. Eztabaida horietako bat, beraien gizarte oso sexista eta kontserbadorea iduritzen zaidalako da. Nik erraten diet EHN ezberdin dela, mutilek eta neskek elkarrekin egiten ditugula gauza gehienak. Gaur egun, EHN sexismoa oraindik badela baina hemen baina aurreratua gaudela hortan. Gaur, aldiz, TTIPI-TTAPAREN iritzi saila irakurri dudanean, konturatu naiz zenbat gauza dauden oraindik egiteko.

Hasteko, erran nahi dut Baztango Dantzarien lana oso garrantzitsua iduritzen zaidala gure kultura eta dantzak mantendu eta bultzatzeko. Beraien esku dago zein dantza dantzatu, eta zeinek dan-

tzatu; beraiek egiten dituzten ekitaldietan, noski. Hortik kanpo, herriko bestetan, Baztandarren Biltzarran, herriak herriarentzat antolatzen dituen ekitaldietan bakoitzak nahi duena, nahi duenarekin eta ahal duen bezela dantzatzeko eskubidea duela uste dut. Batzuk pentsatzen dute tradizioa dela eta horrela mantendu behar dela baina ni ez nago ados horrekin. Gizartearekin batera, hizkuntza, ohiturak...aldatzen dira. Badiara tradizio batzuk jendea diskriminatzen dutenak eta ez dut uste hauek gizartearentzat onak direnik. Ikasi behar dugu ohitura hauek hobetzen eta gaizki egindakoak konpontzen, aurreragegintuz atzera joan beharrean. Tradizioa mutil dantzak dantzatzea da eta ez du inportanork dantzatzen dituen. Zergatik ezin dugu zahar, gazte, gizon eta emazte, denek elkarrekin dantzatu? Gero eta jende gehiagok dantzatzen badu orduan eta arrisku guttiago izango da dantza hori galtzeko.

Nere ustez, emakumeak dantza hauetatik kanpo uztea, sexuarengatik baztertzeko eta mespretxatzea da. Emakumeok ezin dugu plazan mutilekin batera dantzatu. Agian, txistulariari permissioa eskatzen badiogu kioskoaren atzean dantzatzeko eta ez badigu inork ikusten... beharbada orduan jotzen jarraituko du! Hau ez bada sexismoa, zer da?

Tradizioz, emakumeok ez gi-

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

nen inauterietan etxez-etxe ibiltzen ahal, ez ginen herri eta hirietako elkartetan bazkide izaten ahal, ez ginen zikiro-jatera joaten ahal... Tradizioz sukaldean egon eta umeak hazitzea zen gure aukera bakarra. Tradizio hauek gizarteak aldatu zituen, justuak ez zirelako. Ez dut uste mutil dantzen tradizio honek espezioa izan behar duenik. Agian bazterrak nahasten ari naiz baina batzutan beharrezkoa dela uste dut. Bazterrak nahasiz lortu dugu emakumeok, intsumisoeak, langileok, euskaldunok...eskubidez dagokiguna. Espero dut Baztanera bueltatzen naizeneko, mutil dantzak eta beste dantza guztiak, denak elkarrekin dantzaten ikustea.

GARBINE ELIZEGI NARBARTE
(LEKAROZ)

**Cultur 99, zein kultura?**

Udaren etorrerarekin batera Nafarroako Gobernuak Kultur 99 egitasmoa paratu du martxan, erabat turistentzat pentsatua. Urtean zehar bertako indigenentzat ailegatzeko ez diren pezeta guztiak hilabete batez xahutzen dira turistentzat, inongo orokarik gabe. Hizkuntz irizpideak ere turistenak erabiltzen dira, nonbait.

Uztailaren amaiera, Berako Kultur Etxean. Nafarroako etxeen inguruko erakusketa

paratu zuen Nafarroako Gobernuak. Eurek erabaki zuten egutegia, eurek ere ordutegia, Berako Udala deusetarako kontuan hartu gabe. Berako Udalak astean bortz egunez erakusketa zainduko zuen pertsona paratu behar zuen, erakusketaretoarekin batera. Trukean, bertako hizkuntza erabat baztertua egonen da unero. Erakusketan hitz bakar bat ere ez da euskaraz ikusi ahal izan. Erakusketaren kartelak (uztailaren 23an idekitako erakusketaren abuztuaren 4an ailegatu ziren) hizkuntza bakarrean zeuden, gaztelaniaz noski.

Noiz arte jarraitu behar dugu horrelako antolakuntza kaskarra jasaten? Gure diruaz bertzeentzat antolatutako gauzetan ere ez al dute gure nortasunaren berri emanen? Ez ai diegu jakinarazi behar kanpotik etorritakoei, hemen gaztelaniaz gain bertze hizkuntza bat badugula, eta Bera herri euskalduna dela?

Berako Udalak antolaketan zerikusirik ez duen bezala, erakusketan euskarak jasan duen bazterketan ere ez du ikustekorik. Lerro hauen bitartez gure haserre adierazi nahi dugu, eta aurrerantzean halakorik errepika ez dadin neurriak hartuko ditugula jakinarazi nahi dugu.

JON ABRIL
BERAKO KULTUR DINAMIZATZAILEA



Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

(+34) 948 631188

ARGAZKIAK



DONEZTEBE • ELIZONDO
Tfnoak.: 948 58 01 55
948 45 08 25

- ▶ %10 merkeago argazkiak errebelatzea



DONEZTEBE • ELIZONDO
Tfnoak.: 948 58 04 91
948 45 03 64

- ▶ %10 merkeago errebelatu eta artikuluetan

ARROPA DENDAK

edurne

UMEENDAKO ARROPA

Altzate, 34 • BERA
Tfnoa.: 948 63 06 06

- ▶ %10 merkeago 5.000 Ptatik goitiko erosketetan

KATTALINGORRI

ARROPA DENDA

Santiago • ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 06 93

- ▶ %10 merkeago artikuluz guzietan

ZAPATAK

ALDI-ROZAS

Knattonberri • BERA
Tfnoa.: 948 63 06 80

- ▶ %10 merkeago oinetakoetan



TTAPI TXARTELArekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA

948 63 11 88

Irailaren 18an Iruritan egingen den **VI. Garagardo Bestarako 10 sarrera** zozketatuko dira. Zozketan parte hartzeko, deitu irailaren 15a baino lehen 948 63 11 88ra.

Iruritako Garagardo Besta

Raimundo Amador
Amparanoia
Kargols
Buitraker
Radio Terror

Rare Vocation
Ñako Goñi y los
Bluska Vidas
Boll
Txalaparta



Iruritako Garagardo Bestarako **10 sarrera**

zozketatuko dira TTAPI TXARTELA dutenen artean.

Zozketan parte hartzeko, deitu irailaren 15a baino lehen 948 63 11 88ra.

PENTSUAK



MENDAUR PENTSUAK

Aparan • DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 18 45

- ▶ %5 merkeago zakur, katu... pentsuak

LIBURUAK

LEGARRA

LIBURUAK
PAPERTEGIA
FOTOKOPIAK

Albistur, 9-11 • LESAKA
Tfnoa.: 948 45 03 33

- ▶ % 10 merkeago Liburu eta paper-tegia 1.000 Ptatik goitiko erosketetan

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Navarra 99ko abuztuak 30

«Plazaola treneko langileek nahi genituen bidaiak egiten ahal genituen debalde, nahi izan ezker Bilboraino».

«Lanera oinez joaten ginen, eta trenbidean barna bagoneta batean ibiltzen ginen. Gure lana errailak berritzea eta tuneletako erorkak moldatzea zen».

Jose María Razkin
20 urtez Plazaolako langilea.
LEITZA
Diario de Navarra 99-08-30

«Tradizioa errespetatu egin behar da, baina garai batean nola lan egiten zen eta gaur egun nola aritzen garen erakutsiz. Ez dut aldatuko aspalditik datorren egiteko modu bat, eta erakutsi didaten bezala egiten jarraituko dut. Kaikua, kaikua da, besterik ez».

Jorge IRIBARREN
Kaikugilea.
DONEZTEBE
Nafarkaria 99-09-03

◆ **Zergatik Sarako Bestak hain famatuak dira?**

- ❖ Inguruetako jendea ibiltzen delakotz eta udako azken bestak direlako. Orduan, hoberenak!
- ◆ **Zer behar da besta on batzuk egiteko?**
- ❖ Giroa, musika ona eta garagarnoa kas limoiarekin. Edaria neurtuz!
- ◆ **Zer falta da Sarako Bestetan?**
- ❖ Joan den urtean eguzkia, bertzerik ez. Agian aurten gurekin izanen dugu.
- ◆ **Bestetan zer musika talde nahi zenuke ikusi?**
- ❖ Sargent Garzia edo Brigadistak Sound System.
- ◆ **Besta egiteko herri bat?**
- ❖ Lesaka.
- ◆ **Dantzatzeko, trikitixa, rock&rolla edo musika elektronikoa?**
- ❖ Dantzan aritzeko edozein musika gustatzen zait.
- ◆ **Zoin da gehien preziatzen duzun edaria?**
- ❖ Etxeko patxarana.
- ◆ **Sarako bestetako egun hobereena?**
- ❖ Astelehena.
- ◆ **Sarako mutilak edo Miarritzekoak?**
- ❖ Ah, ah! Hori nerretzat atxikitzen dut.
- ◆ **Zer toki du euskarak herriko bestetan?**
- ❖ Euskara. Nahiz eta egitarauan agertu, hala nola bertsolari edo kantaldieri esker, gero eta toki guttiago du saratarren artean. Hau aldatzeko, Sarako AEKk urte guzian klaseak proposatzen ditu.
- ◆ **Zure azken mozkorra?**
- ❖ Ez naiz oroitzen!
- ◆ **Eta ondokoa?**
- ❖ Gero erranen!



Mirentxu IRIARTE

SARA
Miarritzen saltzailea

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

■ **Zurich Aseguruak**

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ **Lan aholkularitza**

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ **Aholkularitza fiskala**

• Errenta Deklarazioak, IVA...


■ **Inmobiliaria**

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ **Gestoria**

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO



Maderas GOMEN

- Era guzietako atea, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645



KOXXILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA

Ornoz-Sunbilla eta Arrigazteluko errepide zatiak moldatzeko lanak irailean emanen dira

Ornoztik Igantziko Bentarako tartea 2002. urtean akitua egoten ahal da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuaren ustez, NA-121-A errepidean Ornoz-Igantzi trazatuberria hemendik hiru urtera akitzeko moduan dago. Hogei kilometro horiek berritzeko, Herrilan Departamenduak 6.300 milioi pezeta inbertituko ditu, hiru zati ezberdinetan.

Larrakaizkotarteajon den urteko abenduan hasi ziren moldatzen eta heldu den urterako akituko dute lana. Lanaren aurrekontua 1.550 milioi pezeta ingurukoa da eta tunela ere egingen dute.

Bertze bi tarteen adjudikazioa irailean egingen du Nafarroako Gobernuak. Arrigazteluko lanak, Larrakaitzekoari segida ematen dionak, 1.652.394.181 pezeta aurrekontua du eta 2002. urterako akitzea espero da. Hemen ere tunela egingen dute.

Errepidearen zaharberritzea Ornoz-Mugairi, Doneztebe eta Sunbilla arteko zatiarekin akituko da. Hiruetan

zatririk luzeena eta garestiena da. Irailean lehendabiziko fasea emanen da, Ornozko herrigunetik Sunbillako saihesbidera doaiena. 3.086.328.025 pezeta aurrekontua du eta hau ere 2002. urterako prest egonen omen da. Orduan, Zozaia eta Ornoz arteko tartea arriskutsua moldatzea bakarrik faltako da. Lan honen adjudikazioa ere aurten egin nahi dute, Arrigaztelu eta Ornoz-Sunbilla tartea eman eta berehala.

IBILGAILU MOTELENDAKO KARRIL BERRIA BELATEN

Almandozko tuneletik Marin zubira bitarteko ibilgailu motelendako karril berria egiteko lanak ere irailean emanen dira, ehun milioi pezeta inguruko aurrekontuarekin.

Bertzalde, hiru astez gau eta egun lanean ari ondokit, abuztuaren 27an zabaldu zituzten berriro Belate eta Almandozko tunelak. Alde batetik, Belateko tunelaren inguruko lurra sendotu egin dute ha-



Leitza eta Doneztebe arteko errepidean bi kilometro terdi moldatu eta zabalteko 600 milioi pezetatik goitiko lanak egingen dira. Artxibokoa

mar zatitan 720 buloi (kasik 8 metroko torloju haundiak) sartuz eta, bertetik, tunelaren barneko estaldura azkartu dute 3.039 metro kubiko gunita jarriz.

Hemendikaitzina, Europako Batasunaren aholkuei segituz, merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzten kamioiei Belate eta Almandozko tuneletatik igarotzea galeraziko

zaie. Kamioi hauek Belateko errepide zaharretik joan beharko dute. Neguko elurrak hori oztopatuko duen egunetan baino ezin izanen dira tuneletatik igaro kamioiak.

Azkenik, Leitza eta Doneztebelotzendituen NA-170 errepidean bi kilometro terdi zabaldu eta hobetzeko lanaren aurrekontua 612 milioitakoa da.



ZALAIN
J A T E T X E A

Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

EGUNEKO MENJUA FTA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.

© 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

EHIZTARI!

Zure ehizi aseguria winterthur-en Derrigorrezkoa + borondatezkoa

25.000.000ko poliza.....	3.700 pta/urtea
30.000.000ko poliza.....	3.800 pta/urtea
35.000.000ko poliza.....	3.900 pta/urtea
40.000.000ko poliza.....	4.000 pta/urtea
45.000.000ko poliza.....	4.100 pta/urtea
50.000.000ko poliza.....	4.200 pta/urtea

BERABI Agentzia, S.L. **winterthur**

© 948 630601 • Legia 1 • BERA



PAGOLA

TXISTORRAK BADU
BEREZO IZENA

948 630 054
Altzateko plaza, 2
BERA

Euskal Herriko zinearen historiari buruzko erakusketa Kultur Etxean


Bidasoako II. Jaialdiko filme laburrak ere ikusgai daude egunotan

ASIER GOGORTZA

Irailaren 19a bitarte egonen da idekia XX. mendeko euskal zinearen inguruko erakusketa. 1896. urtetik hasi eta gaur den egunerarte zinearen munduak Euskal Herrian utzi duen arrastoari segitzen dio erakusketak pausoz pauso. Errepaso kronologiko honi esker ikas daiteke Euskal Herrian nork eta nola egin zituen lehen-dabiziko filmaketak (Lumierek Biarritzen, 1896. urtean) eta zein diren oraingo euskal zinegile eta filme garrantzitsuenak.

Informazioa panel haundi batzuetan ageri da euskaraz eta espainolez, argazki ugari hornitua. Gainera, aspaldiko zine kamerak eta bertze gisako tresna bitxiak ere ikusgai daude ondoan.

Zazpigarren artea



Asteartetik igandera, 18etatik 21etara egonen da idekia erakusketa.

deitutakoa maite duen edozeinek gustora egingen du itzulixka bat Berako Kultur Etxetik.

Laburmetriak Kultur Etxean

Erakusketa Bertziko Turismo Partzuergoak antolatu du Bidasoako

Filme Laburren II. Jaialdiaren barrenean, eta gaurogero jakinen duzue, egunotan Kultur Etxean bertan eskaini dituzte lehiaketa horretan parte hartzen ari diren filmak. Gaur, irailak 8, eta bihar, filme horietako batzuk ikuste-

ko moduan zaudete. Ilunabarreko 8etatik aitzinera izanen dira emandak.

Irun eta Donostia aldera zinea ikustera joatea ez dago gaizki, baina filmak herrian bertan botatzen dituztenean... probextu!



Agerrako Krosa

Angel Garatek irabazi du aurten Agerrako bestetako krosa. Lehendabiziko beratarra Patxi Pikabea izan zen, laugarren tokian, eta lehen emakumea Marisol Martinez. Hori seniorretan. Ttikietan, berriz, 6 urte arteko kategorian, Jabier Errandonea eta Yolanda Jimenez gailendu ziren. 6tik 9 urte bitartekoan, Iñaki Lopetegi eta Dorleta Larque. 9tik 13ra, Andoni Lasaga eta Irantzu Etxebeste, eta 13tik 18ra Mikel Jaurena eta Itsaso Huizi.

flash

❖ Ur eskasia

Azken boladako idortearengatik, behar-beharrezkoa den ura bakarrik erabiltzea eskatu die Herriko Etxeak herritarrei. Etxean ahalik eta guttien gastatzea eta baratzeean iturri publikoetako ura erabiltzea aholkatu dute, bertzeak bertze.

❖ Ilekuetako bestak

Irailaren 11 eta 12ko asteburuan ospatuko dira.

❖ Sukaldaritza ikastaroa

Oinarrizko sukaldaritza ikastaroa emanen du Iñaki Pikabea Zalaingo sukaldariak irailaren 20tik aitzinera. Astelehenero lamoteneako sukaldetan elkartuko dira eltzeketa eta paderak erabiltzen ikasteko. Gehienez ere 20 lagunendako tokia izanen da, eta izena emateko 948 631 188 telefonora deitu behar da lehenbailehen (Asier). Gure Txokoako bazkideek 7.000 pta ordaindu behar dute, eta gainerakoek 8.000.

❖ Gazte Jokoak

Aurten urriaren 9an hasiko dira Gazte Jokoak. Data eta ordutegia aldatu dituzte antolatzaileek, batez ere Ibardinen ari den jendearengatik. Azaroaren 6a bitarte asteburu izanen da probaren bat.

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

**ERREKALDE
ostatua**

Tfnoa: 948630259 - BERA

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

948 631 462
Alzate I • BERA

Xirgil
Jaione Gaya

LESACA



Igerian aritu ziren gaztetxoak, sariak jaso ondotik.

Argazkia: Aitor

33 neska-mutikok parte hartu zuten igeriketa txapelketan

Estilo ezberdinetan aritzeaz gain, water-polo partidua jokatu zuten

AITOR AROZENA

Abuztuaren 25ean burutu zen Udal Igerilekuan, Beti Gazte elkarteak antolatutako igeriketa txapelketa. Alebin, infantil eta kadete mailako 33 neska-mutikok parte hartu zuten txapelketa honetan, gehienak Lesaka eta Berakoak, baina baita Leitzakoak ere.

Tximeleta estiloan, alebin mailan, Gurutze Andueza eta Unai Rodriguez nagusitu ziren; infantiletan, Udane Cabeza eta Ander Rodriguez eta kadetetan, Lorea Sarobe eta Xabier Juanikotena.

Bizkarka, alebinetan Maitane Gereño eta Unai Rodriguez izan ziren azkarrenak; infantiletan, Udane Cabeza eta Ander Rodriguez eta kadetetan Ane Igarzabal.

Braza erara, alebinetan Isabel Etxebeste eta Unai Rodriguez gailendu ziren; infantiletan Udane Cabeza eta Ander Rodriguez eta kadetetan Lorea Sarobe eta Xabier Juanikotena.

Estilo librean, alebinetan Maitane Gereño eta Unai Rodriguez suertatu ziren txapel-dun; infantiletan, Udane Cabeza eta Ander Rodriguez eta kadetetan

Lorea Sarobe eta Xabier Juanikotena.

Australiarrean, azkenik, honako hauek irabazi zuten: Maitane Gereño eta Unai Rodriguez; Ander Rodriguez

eta Udane Cabeza eta Lorea Sarobe eta Xabier Juanikotena. Beñat Sarategi eta Beatriz Goikoetxeak 100 metro estiloak egin zituzten, erakustaldi gisara.

San Fermin jubilatuko elkarteak Errioxara doazi irailaren 24an

Irailaren 24an Errioxara joateko asmoa dute San Fermin elkarte erretiratuek. Lesakatik abiatuta Etxegarate, Altsasu, Gasteiz, Miranda de Ebro, Haro, Biasteri (Laguardia), Mañeru eta Iruñan barna igaroz, berriz ere Lesakara

itzultzeko. Hori ibilbidea, baina geldialdiak ere nonahieginenomen dituzt, gosaltzeko, hameketakoa egiteko, bazkaltzeko eta herriak bisitatzeko. Bidaiaren prezioa 2.400 pezetkoa da. Txartelak irailaren 20a baino lehen jaso behar dira.

flash

Txotxongilo emanaldia igandean...

Igande honetan, irailak 12, arratsaldeko 6etatik aitzinera txotxongiloen emanaldia izanenda udal pilotalekuan. Kukubiltxo taldeak «Kukubel» izeneko ikusizuna eskainiko du eta sarrera dohainik da. Bortzirietako Euskarra Mankomunitadeak eta Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak antolatu dute ekitaldia.

...eta Magia asteazkenean Arranon

Heldu den asteazkenean, irailak 15, arratsaldeko 6etatik aitzinera Txan Haundia magoak emanaldia eskainiko du Arrano elkarteak. Ekitaldia Arranak berak antolatu du, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

Musika Eskolan

Ekainean izena eman ez zutenikasleek irailaren 13tik 17ra matriculatu ahal izanen dira, goizeko 8etatik 11etara Herriko Etxean. Helduentailerrean ere nahi duten guzkiek ematen ahal dute izena. Urriaren 1ean, arratsaldez, banatuko dira musika-tresna ikas-taroen ordutegiak Irain eskolan. Ikasurtea, berriz, urriaren 4an hasiko da.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948627573 • LESACA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESACA

Lurrindenda
Marian
endiberri
Estetika
Behoko Plaza 8 • 948637791 • LESACA

ANA
Janaridenda
Bittiria, 41 • 948637518
LESACA

BITTIRIA
HARATEGIA
948 627555
Bittiria, 43 • LESACA

ETXALAR

Auzoetako baserriak eta bideak agertzen dituzten mapak paratu dira

Landagain eskolako haurrak hasi dira ikasturte berrian

PELLO APEZETXEA

Aspalditik prestatzen ari ziren mapak, abuzturako paratu ditu Udalak. Auzo bakoetako baserriak, bideak eta erreka nagusiak ikusten ahal dira beraietan. Horrela, edozeinek, mediku, turista edo normahidela, egiten ahal du edozein baserriarako bidea, inori galdetzenedo inorekarrarazten ari gabe. Zazpi mapa dira oraingoz, baina bertze toki batzuetan ere paraturak dira. Igantzin eta Beran ere ikusten ahal dira horrelakoak.

Adinekoen bidaiak

Arkupeak edo Larraburua elkarrekin prestatuta, hainbat ibilaldira

ko aukeradute adinekoek. Eta ari dira probetentzen. Eguntan Arantzazu eta Lezora, geroxeago Lodosara, eguneko bidaien artean. Baina luzeagoak ere hor dira: Andaluzia, Portugal, berriaz Benidorm, etabar...

Landagain eskolak atek ireki ditu


TTIPI-TTAPA hau banatzen den egunean sartu izanen dira haurrak lehen aldiz eskolan, 1999-2000garren ikasturtea egiteko. Ikasleko-puruak aldaera haundirik ez du izanen, bi ikasle berrik eman baitute izena, eta lau joan dira Berara, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak hastera.

Argentinaren bisitaldia

Egun batzuk joanak badira ere, merezi du aipatzea. Hirugarren taldea da Argentinatik Euskal Herria ezagutera etorri, eta Etxalarren bisitaldiaren hondarreko eguna egin duena. La Platako Euskal Etxeak bultzatu eta prestatutako bidaiak dira.

Musean gazteak ere ari dira

Mus jokoa adinekoena balitz bezala begiratzetuz dugu zenbaitetan, baina gazteak ere aritzen da. Ezustekoa izan zen, batzuentzat benpin, Andremarietan gazteen partehartzea, emaztekiak ere tartean. Izan ere, neskek, elkarrekin bil-



Orizki auzoko mapan, bertzeetan bezalaxe, baserriak, bideak eta erreka nagusiak ageri dira.

Argazkia: Pello

tzen direnean, musean noiznahi aritzen omen dira. Ostatueta, dena den, Larraburuaz gain,

muslari franko ikusten da, bertan plantatzen diren txapelketetan. Eta ez zuegun bakarrik.

Mmanuel Zamorano
Bernizadurak
Pintura orohar
689 042 671 • 948 637556
Bittiria, 37 • LESAKA

FOTOKOPIAK
txuri beltzean
KOLORETAN
PLASTIKAZIOAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA
LANAK
SERIGRAFIA
KULTUR ETXE
AURREAN
ERRODULOAK
PUBLIZITATEA
BERA
Tel. 948 63 15 21

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
948635290
ETXALAR

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
© 948 63 75 58

HARITZPE
948635235
948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK
Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

ELENA ENGLISH
✓ Matrikulazio epea zabalik
✓ Helduak (FIRST) eta haurrak
✓ Maila guztiak
Tel.: 670 433 157
LESAKA • ETXALAR

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura Orokorrak
Bera © 948630735
Irun © 943622305

IGANTZI

Igantzi IX. Mendi Bizikleta ibilaldia irailaren 12an izanen da

Idortea lehendabiziko arazoak sortzen hasi da

OSKAR TXOPERENA

Igande honetan, irailaren 12an, mendi-bizikletez beteko zaigu herri ingurua. Bederatzi urte joan dira proba antolatzen hasi zenetik, tartean urterik utzi gabetapartaidetza haundiarekin. Hasierako urtetan Mendi Bizikleta taldeak antolatzen bazuen ere, azken urteotakoak Biltoki Elkartearen eskutik atera dira aintzina.

Iazko proban, eguraldi penagarriarekin, izena eman zuten 71 txirrindularietatik Emanuel Itoiz iruñearra izan zen azkarrena 22 kilometrotako ibilbidea egi-

ten. Normalki, ordea, 120 lagunetik goiti izaten dira irteera puntuan. Gogoratu behar da txirrindulariak sei maila ezberdinetan daudela sailkatuak, ibilbide ezberdinekin, eta proban izena emateko 88an edo lehenago jaioa izan behar duela. Haur txikiagoen itxulixka 9,45tan izanen da.

Bestak

Herriko bestak ere gain-gainean ditugu. Aurten, iaz bezalaxe, San Miguel eguna asetazkenearekin tokatu denez, bestaluzexamarak izanen ditugu, bezpera eta bertze bortz egun. 28an hasiko dira



Pala txapelketaren finala

Abuztuaren 7an jokatu zen Igantzioko Pala Txapelketaren finala. Ezin izan zuten Josetxo eta Imanolek orain dela bi urte jokaturako azken txapelketako garaipena errepikatu, Juan Jesus eta Iñakik, euren baino hobekiago jokatuz, 35-32 irabazi baitzieten finalean. Erran beharra dago giro ederrarekin jokatu zirela bai finalerdiak eta baita finalak ere, jende azkarki bildu baitzen frontoira bi egunetan. Biltokin egindako afariarekin eta Berako bueltaxkarekin eman zioten akabila bestari.

Argazkia: Oskar Txoperena

eta urriaren 3a bitartean iraunen dute. Artzai Zakur Lehiaketa, berriz, aintzineko igandean izanen da, 26an. Hori da momentuz programari buruz erraten ahal duguna. Hurrengo alean izanenduzue xehetasun gehiago. Herri bazkari-

ko txartelak irailaren 24a arte egonen dirasalgai ohiko lekuetan.

Idortea

Uda guzia darama euria fundamentoarekin egin gabetenik eta nabaritzen hasi dira dagoeneko horren ondo-

rioak. Inguruak ederki gorritzen ari dira eta herriko depositoa ere ur eskasia gero eta nabariagoa da. Arazo honi bertze irtenbiderik arrautzen ez zaion bitartean, kontuz ibili behar harko ura erabiltzerakoan.

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
 Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

CONSTRUCCIONES MECANICAS

BERRIZTUN S.L.
 Makinaria eraikuntza
 Moldaketak eta despiezea
 Mantenimendu mekanikoa
 Torno, fresadorak, errekifikadorak
 Igantzioko Bentak • ☎ 948627572 • Faxa: 948637313

PIKABEA
 Molinero drogerian galdetu
pinturak
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
 • Fatxadak
 • Barne dekorazioa
 • Pintura orokorrean
 Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • **BERA**

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
 • Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
 • Enbalaketa elementuak eta flejeak.
 • Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
 • Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
 Igantzioko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

ZALDOSTATEA
LESAKA

ARANTZA

Giro ederrean joan ziren aurtengo bestak

Medikuaren etxea moldatzeko milioi bateko dirulaguntza

ELIXABET ETA GARBINE

Urtero bezala, giro politean joan ziren herriko Amabirjin bestak.

Idoia Etxeberria zinetz negotziak botazuen beste hasiera ematen zien altxaferoa. Ondotik, Gasherbrum-II mendira joan zen Ana Larretxeari omenaldi ttiki bat eskaini zitzaion: aurrerakua dantzatu eta lore sorta eman zioten. Amabirjin egunean, herriko dantzak ikusi ahal izan genituen. Pilota partiduak ere jokatu ziren, Ekaitza elkarteak urtero antolatzen duen pilota txapelketaren finala. Bertan, Tomas eta Patxik, Aitor eta Xabier lehengusuen kontra irabazi zuten. Honetaz gai-

nera, bertsolariak, herri bazkaria, haur jokoak... denetik izan dugu.

Gaszte Asanbladak Arantza Rock kontzertuan egindako zozketan zenbaki hauek saritu zituzten:

1. saria: 164 (kanpin denda eta motxila bat edo sei afari).

2. saria: 693 zenbakia (lau afari).

Kontzertuan aitzineko urteetan baino jende guttiago izan zen, orrtziraletan zelako, akaso. Latzen taldeak bere azkeneko emanaldia eskaini zuen Arantzana.

Medikuaren etxean moldaketak

Medikuaren etxea moldatzeko milioi bateko ditulaguntza eman



Ander Agesta txapeldun Antiguoko txapelketan

Abuztuaren 29an, Ander Agesta Almandoz herriko pilotaria txapeldun suertatu zen Antiguoko etorkizun edo promesas mailan, Iruñako Pedro Martinez de Eulatekin bikote eginez. Finalean 22 eta 9 irabazi zuten. Argazkian, zutik eskuinean ageri da Ander, gainerako kategorietako irabazleekin batera.

Argazkia: Gara

du Nafarroako Gobernuak. Leiho eta pertsiana berriak jarriko dituzte eta etxea pintatuko dute. Medikuaren etxarekin segituz, Nafarroako Gobernuak Osasunbideak 407.694 pezetako dirulaguntza eman du, mantenimendu eta funtzionamendu gastuak ordaintzen laguntzeko.

Eliza garbitzaileen eskurtsioa

Abuztuaren 31n egin zen eliza garbitzaileen eskurtsioa. Jende dexente joan zen eta diotenez hagitz ongi pasatu omen zuten.

Artikutzako eguna

Abuztuaren 28an ospatu zen Artikutzako eguna. Urtero bezala,

Arantzatik oinez jende dexente hurbildu zen, egunpasa egin asmoz.

Ikasturte berria hasi dute xx haurrek

Irailaren 6an hasi dute 1999-2000 ikasturtea herriko eskolan. Guzira 44 ikasle arituko dira (iaz baino 10 guttiago) eta hiru irakasle berri izanen dituzte.

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzale, 5 • © 948630083 BERA

SAROBÉ
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA


GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 • BERA
© 948 630 763


ERROTAZAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

EGUZKI OSTATUA
Era guzietako bokatak, hotzak eta beroak
Kaxulak
Bazkari eta afari bereziak enkarguz
Erretegia
Legia, 39 - BERA - ☎ 948 631 012

SUNBILLA

Santiago Espelosin garaile bestetako aitzur lehiaketan

San Tiburtzioetako berrikuntza nagusia izan zen

JAIONE ETA ALBA

Giro ederrean joan dira aurtengo San Tiburtzio bestak. Berrikuntza aunitz izan dira: kukaña, peñen bazkaria, aitzur botatzea, duatloia... Denek arrakasta izan zuten, baina lagun gehien bildu zituena, San Tiburtzio eguneko aitzur tiraketa izan zen. Marcillatik, Nafarroako Erriberatik ekarritako kirol honek partehartzailerik dexente eta ikusle aunitz bildu zituen. Santiago Espelosin sunbildarra izan zen irabazle.

Duatloian, 5 kilometro terdi lasterka eta 15 mendi bizikletan egin zituzten. NARBARTOKO MITXEL AGINAZA izan zen irabazle, Igor Agesta sunbildarraren aitzinetik.

Goitibehera lehiaketan zazpi tramankulu



Joan den urtean bezala, Mikel Bertiz eta Mikel Ibarrek irabazi zuten goitibera lehiaketa

atera ziren eta, iaz bezala, Mikel Bertiz eta Mikel Ibarra izan ziren azkarrenak.

Plater tiraketan Joxemik irabazi zuen eta dantza txapelketan, berriz, M^a Jesus eta Ana nagusitu ziren.

Beti bezala, txarrena bestak akitzea izan zen, aurtan bi arrazoiengatik:

besteio adio errateaz gain, aurtan ez da 'Pobre de Mi'rik izan. Ea heldu den urtean berriskuratzen den.

Lau haur berri eskolan

Amaia Goñi, Andoni Espelosin, Maite Arranbillet eta Janire Apeztegia hasi dira lehen aldiz eskolan.

ITUREN

Joaldunen Eguna irailaren 18an

Lasagako auzotarrek herri kirol saioa eskainiko dute eguerdian

IBAN ISASI

Urtero bezala, aurtentzen Ibtintza kultur taldeak irailaren 18-ko plantatu du Joaldunen Eguna. Egitarauak ez du aldaketa aunitz. Goizeko 10etan Ameztiko baserriak bisitatzea joanen dira joaldunak. Hauekin batera, herriko trikitilariak ariko dira. Hamabiak aldera, herrira itzuliko dira. 1,30ak inguruan, bertsolariak ariko dira eta ondotik herri kirolak, Lasagako auzotarren artean. Arratsaldeko 3etan hasiko da herri bazkaria Herriko Etxeko ganbaran. Ondotik, bertso saioa eta herriko trikitilarien emanaldia. Arratsalde eta gauaz dantzaldia



izanen da Mikel Salaberriekin. Bazkarirako txartelaren prezioa 3.300 pezeta izanen da eta herriko ostatueta eta dendetan salgai daude.

Pelikula emanaldia

Abuztuaren 23an Ibtintza kultur taldeak pelikula emanaldia eskaini zuen herriko plazan, arratsaldeko 10etatik aitzinera. «Tomate berde fixituak» pelikularekin jende aunitz bildu zen. Gaueko giroak ere lagundu zuen.

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

Zure ingurua klase guzizko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo zarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termita eta Polillen kontrako tratamendua



© 948630155
BERA

BEINTZAKO OSTATUA

© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN



APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE



Legarrea, 9 • © 948 637 030 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espirelean ere egiten dira

MALERREKA

Zenbait ikastaro antolatu ditu Langarra Euskara Taldeak

Izena emateko epea irailaren 30a akituko da

PATXI IRIARTE

Joan den urtean bezala, aurten ere zenbait ikastaro antolatu ditu Malerrekako Langarra Euskara Taldeak. Ikastaroak urritik ekaina bitarte eginen dira eta euskaraz izanen dira.

Yoga ikastaroa ortzegunetan emanen da, arratseko 7etatik 9etara. Soaham eskolako irakaslea etorriko da eta 10-12 lagunekoko taldea eginen da. Horietako bakoitzak 7.000 pezeta ordaindu beharko ditu hilerero.

Zeramika ikastaroa Virginia Bosch-ek emanen du, asteazkenetan arratsaldeko 7etatik 9etara. Hamabi lagunekoko taldea eginen da eta bakoitzak 3.000 pezeta ordainduko ditu hileroko.

Txalaparta ikastaroa Arantxa Ansaren eskutik izanen da. Asteartetan 7etatik aitzin hasiko dira klaseak eta talde kopuruaren arabera luzatuko da arratsaldea. Taldeko lau lagun hartuko dira eta bakoitzak 3.500 pezeta ordainduko ditu.



Helduak nahiz gaztetoenak bertsolaritzan trebatzeko aukera ematen dute Langarra eta Euskara Zerbitzuak antolatutako ikastaroek. Artxibokoa

Bertsolaritza ikastaroa, azkenik, Estitxu Arozenak emanen du. Egunak eta prezioa taldearen arabera aldatuko da. 10-12 lagunekoko taldea izanen da.

Ikastaroetan izena emateko epea irailaren 30ean akituko da. Horretarako 948 451 746 telefonora (Esther) edo 670 406651 telefonora (Garbiñe) deitu behar da. Langarra taldeko bazkideek ikastaroaren

prezioaren erdia bertzetik ez dute ordainduko.

Haurrendako bertsolaritza ikastaroak

8 eta 12 urte bitarteko haurrek Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako bertsolaritza ikastaroan parte hartzeko aukera izanen dute. Asmoa, ikastaroak herriz herri egitea da, be-

ti ere horretarako taldetxo osatuz gero. Izena emateko epea irailaren 25ean akituko da.

Bertzalde, Euskara Zerbitzuak adin bereko haurrentzat bigarren urtez antolatutako ipuin eta bertso-paper lehiaketan lanak aurkezteko epea zabalik dago urriaren 22a arte. Azaroaren 10ean sari banaketa eginen da eta parte hartzaile guztientzat txokolata izanen da.

Mendi Txiki abesbatza jendaurrean aurkeztu da larunbat honetan

Auniztan aritu gara Doneztebeko Mendi abesbatzaren historiari eta kontzertuetaz, baina oraingo berri ona, bere *ahizpa tikiaren* sortzea da. Larunbat arratseko meza ondoren aurkeztu zen eskolako neska-mutikoen osatzen duten Mendi Txiki Abesbatza. Emanaldian era guzietako kantuak eskaini zituzten, erlijiosoak, herrikoiak, nazioartekoak... hori bai, gehienak euskaraz abestu zituzten.

Joxe Jabier Aizkorbe da abesbatza tikiaren zuzendaria eta abeslari ez gain, zenbait musikari ere aritzen dira: Jabier Bertiz eta Maria Iraola akordeoiarekin; Irati Juanikorena zeharkako xilarekin; Iñigo Arregi, Maria Otermin eta Birjina Fernandez gitarristak eta Rut Etxebeste organujolea.

Mendi *haundiarantz* harrobi lanabetez gain, kulturekaintza berria da Mendi Txiki, bai adituzko baita, eskolako haurrei dagokienez, parte hartzeko ere.

Ibarrola Mertzeria
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 - Doneztebe
948450463

Marierua
LENTZERIA
2000. urtean sartzeko presta zaitex kolore eta ehunetan dauzen azken modu batekin

Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe

MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Angie
ENGLISH ACADEMY
© 948 45 01 02
Etizagibela, 7 Behea • DONEZTEBE
Ingelesa ikasteko modurik errax eta atsegina

Irakasle amerikarra, multimedia-ordenagailuak, bideoteka, etabar.

98-99 ikasturterako matrikula zabalik

MALERREKA

Oizko bestak, irailaren 7tik 12ra

Igande eguerdian aizkora apostu ikusgarriak jokatuko dira

Asteartea, irailak 7
8etan altxaferoak beste hasiera emanez. Txistulariak herrian barna ibiliko dira. **Gaueko 12etatik 4etara** dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariarekin. Ondoren, zingarra jatea Herriko Elkarte.

Asteazkena, irailak 8
11,30etan Meza Nagusia. Ondotik hameketakoa Herriko Elkarte. **1etan** aizkora apostua: Mikel Mindegia Senosiainenaurka. **5,30etan** pilota partiduak haurren artean. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia JOXE ANGELekin. Ondoren, zingarra jatea Herriko Elkarte.

Ortzeguna, irailak 9
11etan herritarren artean pilota partiduak. **5etan** herritarren artean, Laxo partidua. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia JOXE ANGELekin. Ondoren, zingarra jatea.

Ortzirala, irailak 10
5etan herritarren artean herri kirolak. **Arratsalde**

eta gauez dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Ondoren, zingarra jatea.

Larunbata, irailak 11
11etan mus txapelketa, Herriko Elkarte. **4etan** haurren jokoak herriko plazan. **5etan** plater tiraketa. **Arratsalde** dantzaldia eta **gauez** gaupasa LAIOTZ taldearekin. Goizaldera, zingarra jatea Herriko Elkarte.

Igandea, irailak 12
12,30etan aizkora apostuak. Lehendabiziko, Arria I eta Aierbe I, Arria II eta Aierbe IIren aurka. Bigarreneko, Jexux Agite (zutik dagoen 6 metroko enberraren gainean 3 korte) Latasa aita-semeen aurka (10 korte arpanaz egin beharko dituzte). Gero, Mixel Latasak harri-jasotze erakusketa egingen du. **1etan** herriko plazan bertsoaioa, Xebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin. **2etan** zikiro jatea bertolariak alaiturik. Txartelak, alde zurretik, herriko el-



Kasik 30 urteko aldea dago bi argazkien artean, baina kontuak ez dira sobera aldatu 1998tik 1969ko bestetara.

karte salduko dira. **5etan** toka txapelketa. **Arratsalde eta gauez** dan-

tzaldia LAIOTZ taldearekin. **12etan** mozorro desfilea: mozorro hoberenajar-

tzen duenari opari berezi bat emanen zaio. Beste akabila emateko, kalejira.

Eratsungo bestak ere egunotan ospatuko dira

Asteartean hasi ziren eta igandea bitarte hainbat pilota partidu ikusteko modua izanen da

Asteartea, irailak 7
9etan zopa jatea Pelotazale Elkarte eta norbere etxean.

Asteazkena, irailak 8
9etan kalejira festei hasiera emanez. **12etan** Meza Nagusia, Leokadiko Amabirjinaren ohorez. Meza ondoren MODES-

TO akordeolaria. **6etan** aizkora apostua: Mindegia Olasagastirenaurka. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia MODESTOrekin.

Osteguna, irailak 9
6etan pilota partiduak: Julen Retegi eta Urrutia, Etxeberria-Etxeberriaren aurka. Afizionatutan, Jesus

Retegi eta Zillbeti, Egimendi eta Zabaloaren aurka. **Eguerdia, arratsalde eta gauez** dantzaldia MODESTOrekin.

Ostirala, irailak 10
Haurren Eguna
11etatik 1,30etara eta 3etatik 6etara umeeen parkea (karts, gaztelu l'haiza-

tua, zezen mekanikoa...). **6etan** pilota partiduak: Beñat Retegi eta Gaizka Bendoiro, Eneko eta Egoitzen aurka. Afizionatuak, Baleztena eta Eskudero, Buldain eta Baleztenaren aurka. **Eguerdia, arratsalde eta gauez** dantzaldia MODESTOrekin.

Larunbata, irailak 11
6etan herri kirolak. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia DRINDOTS taldearekin.

Igandea, irailak 12
Eguerdia herri bazkaria bertolariarekin. Txartelak salgai herriko bi ostategian eta Herriko Etxean.



6etan pilota partiduak: Julen Retegi eta Urdaniz, Julen Baleztena eta Etxeberriaren aurka. Afizionatuak, Retegi eta Zilbetiren aurka. **Eguerdia, arratsalde eta gauez** dantzaldia MODESTOrekin eta Gaixoa Ni.

MALERREKA

Onddo eta zizen inguruko ekitaldiak burutzen ari dira asteotan Elgorriagan

Erakusketa zabalik dago urriaren 4a bitarte

TTIPI-TTAPA

Igande honetan, ziza eta ondoen bidea Elgorriagan gaia hartuta burututako argazki rallyarekin hasiera eman zaie zenbait asteburutan herrian eginen diren ekitaldiei. Egun berean, haurrak onddo galduren bila aritu ziren ginkanan eta hameketakoa banatu zen, trikitilarien musikaz alaitua.

Erran bezala, datozen asteburuetan ere izanen dira ekitaldiak. Igande honetan, irailak 12, Onddoaren Bidearen ibilbidea egiteko aukera emanen da, oinez nahiz zaldiz, goizeko 10etatik aitzinera. Partehartzaileei gosaria emanen zaie. Eguerdiko 12,30etan, turismo eta ekologiar buruzko solasaldia izanen da. Hau akitzean, hameketakoa eta trikitixa izanen da. Arratsaldeko 5,30etan, ingurugiroari buruzko lehen marrazki jardunaldian parte hartuko dute haurrek.

Hurrengo igandean, irailaren 19an, Arozarenaren omenez egiten den bigarren onddo eta zizen txapelketa jokatuko da. Eguerdian, Nafarroako Kofradien arteko senidetzea eginen da eta orduerdi beranduago, ekologia eta landa inguruari buruzko solasaldia hasiko da. Hameketakoa banatu-

ko da gero, eta txaranga ibiliko da karrikaz karrika. Eguerdiko 2etan bazkarian bilduko dira kofradia ezberdinetako kideak. Arratsaldeko 4etan, margoketa erakustaldia izanen da.

Urriko lehendabiziko asteburuan ere izanen da ekitaldirik. Larunbatean, urriak 2, goizeko 10etan, Onddoaren Bidea zaldiz eginen da. Eguerdian, azken urteetan mikorizatutako zuhaitzak bisitatuko dira. Arratsaldeko 5etan, iraila hasierako rallian ateratako argazkien erakusketa zabaldu eta sariak banatuko dira. 6etan, Juanito Mariezkurrenaren omenez egiten den Onddo kaxulen lehiaketa jokatuko da eta 8etan afaria eginen da.

Biharamonean, urriaren 3an, goizeko 9etan harrera eginen zaie kofradeei. 10etan Meza Nagusia, Doneztebeko Mendi abesbatzak kantatua. Ondoren, Onddo eta Zizenkofradiako kide berrien izendapena eginen da eta eguerdiko 12etan enkantea. Kofradeen bazkariaren aitzinetik, hameketakoa banatu eta txaranga ariko da. Arratsaldeko 5etan akordeolariekin dantzaldia izanen da.

ERAKUSKETAK ZABALIK

Ekitaldi hauetaz gain, gogoratu behar da abuztuaren 10etik urria-

ren 4ra zenbait erakusketa zabalik daudela. Honela, Juan Carlos Pikabea lesakarraren margolanak. Igantziko Iruglaiz lantegian eskuz egindako grabatuak eta Elgorriagako Martin Ibarrairen burdin lanak ikusgai daude.



Bertzeak bertze, Juan Carlos Olaetxea lesakarraren margo lanak zintzilikatuak daude Elgorriagako erakusketan.

Artxibokoa

garagardo besta
irurita irailak 18 septiembre

barreira 2500pta antolatzaileak diruztatuak gaitzak ordu hauera
 entrada ordu 19:00h hora comienzo

RARE VOCATION
 BOLL
 ÑAKO GOÑI Y
 LOS BLUSKA VIDAS
 RAIMUNDO AMADOR
 AMPARANOIA
 RADIO TERROR
 KARGOLS
 BUITRAKER
 TXALAPARTA

Laguntzaile:
ttipi-ttapa

18

KELER Zaporea eta Nortasuna

GOIZUETA

Fiesta mundialak!

Herritarren partehartzea haundia izan da Amabirjinetan

ESTEBAN AROZENA

Goizuetako fiestek betidanik izan duten ospeak bere horretan segituko du hemendik aurrera ere. Aurtengo Amabirjinek ederki eutsi diote tontorrari, inoiz baino herritarren partehartze haundiagoarekin gainera.

Partehartzea esaterakoan, programa ofizialek kanpo burututako hainbatekitaldiz ari gara. Aipagarria, esate baterako, Akilino «Axura»k eta Donfermineneko Ramonek astelehenean jokaturako aizkora apostua. Lehiak emozioa pixka bat falta izan zuen, baina, halere, herritarrek asko estimatu zuten bi kirolarrien lana. Peñaren eguneko jaia ere, ikaraga-

ria izan zen, urteroko kalejiraz gain, ikuskitun paregabea prestatu zuten peñakide batzuk zuzenketarak. Plazako berendua, «Xubirin» toreroa eta Patziku pikadorea... DYAKoek lan asko egin zuten egun horretan, baina zorionez ez zen harrapaketa larririk izan.

Egun bereko gauean plaza bete zuena Goikobordako Mari Pilar izan zen. Dagoeneko ohikoa bihurtu da Joselu Anaiak taldearekin emakume honek eskaintzen duen aktuazioa. Txalo zaparrad ederrak jaso zituen aurten ere.

Ehiztarien Elkartek antolatutako plater tiraketan ere herritar askok partehartu zuten. Javier Belakok lortu zuen garaipena azkenean.



Juanmielek botatako altxaferoa, herritarren arteko aizkora desafioa eta Xubirin toreroa *paseilloan*. Fiesta hauetan izan da zer ikusi!

ARESO

Udaleko lan batzordeak antolatu dira

Bost ume lehen aldiz joango dira aurten eskolara

JUANA M^a SAIZAR

Uztailean egindako batzarrean udal lan batzorde hauek antolatu ziren:

- **Cederna-Garalureta Plazaola:** Milagros Oreja eta Migel Zabaleta.
- **Euskara:** Joxepa Onsalu eta Juani Arribilla-

ga.

- **Osasuna eta Ongizatea:** Juani eta Milagros.
- **Kultura eta hezluntza:** Juani.
- **Kirola:** Julio Nieto, Tomas Lozano eta Joxepi Marzol.
- **Ura eta mendia:** Migel.
- **Hiri-hondakinak:** Julio, Tomas eta Joxepi.

• **Hirigintza eta herri lanak:** Joxepa eta Milagros.

Udari erreposoa

Aurtengo uda oso lasaia izan da. Euskara Zerbitzuak antolatuta, Ilargipeko zinean lau filma ikusi ahal izan genituen. Festa alaiak eta paketsuak bizi izan di-



Ikasturte berrian hasi dira 26 neska-mutiko.

Artxibokoa

tugu aresoarrok. Gau giro ederrak izan dira hortan laguntzeko. Pixkana-pixkana ikastur-

teari begira jarriz, aurten bost ume hasiko dira. Denera 26 haur daude ikasturte honetan.

Herritar gehienek guardia zibila soberan dagoela uste dute

Honela agertzen da Karrape irratiairentzat egindako ikerlanean

JOSEBA AZPIROZ

Leitzarren %82ak guardia zibilak soberan daudela dio eta %21ak bakarrik onartzen du guardia zibilak nola edo halako funtzioen bat betetzen duela. Honela agertzen da Karrape Irratiaren enkarguz uztailean herrian egindako ikerlanaren datuen artean. Leitzarrek gaizkien baloratzen duten herriko instituzioa da guardia zibila. Oraindik gehiago, lau leitzarretatik hiruk guardia zibila herrian «arazo» bat dela adierazten du. Leitzarren erdiak baino gehiagok, hitzez hitz, Udalak guardia zibila herritik bota beharko lukeela esan du.

KONTROL ZUZENA JASAN DUTE LEITZAR GEHIENEK

Leitzar gehienek jasan dute noizbait guardia zibilen kontrol zuzena, baina gazteek gaintzeko leitzarrek baino kontrol zorrotzagoa jasaten dute. Honenbestez, zaharrena baino irmoagoa da gazteek guardia zibilaren aurka azaltzen duten jarrera, ikerketaren arabera. Kontroletan gelditzen dituztenean, beldurra, haserrea eta inpotentzia sentitzen dute herritarrek, eta orokorrean ere,



Koartelaren ordezkari gazteentzako lokalak jartzea nahi dute hiru gaztetik bik.

horiek dira guardia zibilekin dituzten sentimenduak.

Hogei leitzarretatik batek bakarrik uste du guardia zibilak egun kokatuta dagoen etxea okupatzen jarraitu beharko lukeela. Gaintzekoak etxe hori beste

zeregin batzuetarako erabiltzearen aldeko azaldu dira: gazteentzako lokalak (%45), Kultur Etxea (%40), Zaharren Egoitza (%17) edo Babes Ofizialeko etxeak (%14).

Laburpen gisara zera adierazten dute iker-

ketaren egileek: guardia zibila herrian integraturik ez dagoen indar militarra da, herritarren kontrola egiten duena eta herritar gehien arbuioa jasotzen duena. Herritarrek egoera hau aldatzearen alde azaldu dira.

Bolumen handiko hondakinak hilabeteko hiru lehen asteazkenetan bilduko dituzte

Aurreko batean azaldu genuen bolumen handiko hondakin bilketan (altzariak, elektrogailuak, koltxoak, bizikletak, motorrak...) aldaketak izanen zirela. Zaborren bilketa zerbitzua eskaintzen dutenak hala eskaturik, Udalak industrialdean duen pabilioiaren atarian traste

hauek pilatzeko baimena eman zien. Horrela, hemendik aurrera hilabeteko 1., 2. eta 3. asteazkenetan bilduko dituzte. Itxaron ezin duenak aipatutako pabilioiaren atean utzi ditzake edozeinegunetan. Eskonbroak (obretako hondakinak, leihoak, markoak, atak, kristalak, lababoak, komonak...) berriz, Mandazaien bordako labakira norberak eraman beharko ditu. Zerbitzuko arduradunen telefonoak hauek dira: Inaxio: 649 912 534; Jexux: 649 912 528.

flash

Zakurrak lotuta eramateko bandoa

Zakurrak, kasu askotan, libre dabilta herrian, edozein tokitan pixa eta kaka eginez. Udaletxera aspaldi honetan iristen ari diren eta jakinarazten dizkieten kekuak direla medio, honako hau jakinarazi du Alkateak bando baten bitartez: Zakur guztiak lotuta, nagusiaren eskutik, joan behar dutela eta zakurrek dituzten eginbeharrak etxean egin ditzatela, eta sekulan ez toki publikotan. Edozein arrazoia delata, kalean eginen balute, beste tokitan bezala, zakurren nagusiak bildu egin beharko ditu.

Eskola Graduatu titulua

Oraindik Eskola Graduatu ez duten helduek titulu hori lortzeko, eta ikastaroa egiteko Nafarroako Gobernuak irakaslea jar dezan, hamar-hamabost laguneko taldea osatu behar da gutxienez. Beraz, interesatu guztiak, Udal Idazkaritzan izena eman beharko dute irailaren 20a baino lehen.

Iñaki Iparragirre

ASPE enpresarekin kontratua sinatu ondok, pilotari profesional gisara debutatu du 22 urteko atzelari leitzarrek.

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

ttipi-ttapa internet

<http://www.jalgi.com/topaginoa/ttapi-ttapa>
E-mail: ttapi-ttapa@topaginoa.com

BAZTAN

Iruritako Garagardo Besta irailaren 18an ospatuko da

Raimundo Amador eta Amparanoia izanen dira izar nagusiak

TTIPI-TTAPA

Irailaren 18an ospatuko da seigarren urtez Iruritako gazteek antolatutako Garagardo Besta. Urtero bezala, edari hori (15 garagardo ezberdin izanen dira) eta Errebote plazako taula ginetik pasatuko diren musika taldeak izanen dira protagonista nagusiak. Arratsaldeko 7etan hasi eta 2.500 pezetaren truke, Rare Vocation, Boll, Nako Goñi y los Bluska Vidas, Raimundo Amador, Amparanoia, Radio Terror, Kargols eta Buitraker taldeak aditzeko modua izanen daraman orduz. Txalaparta doinuek ere ez dute hutsik eginen talde baten eta bertzearen artean. Izenari dagokionez, Raimundo Amador eta Amparanoia dira famatuena, baina bertze taldeekin ere giro ederra izanen dela segurtatu dute Iruritako gazteek.

1993an Garagardo Besta antolatzen hasi zirenetik Iruritako gazteak elkartu eta mugia-



Raimundo Amadorren ijito doinuak zabalduko dira Iruritako Errebote Plazan. Bera da aurtengo Garagardo Bestako izar haundietako bat.

Artxibokoa

raztea da antolatzaileen asmoa. **Horretaz gain**, hasieran gazteendako lokala erosi nahi zuten. Orain **berriaz**, herriko bertze taldeen laguntzarekin kultur etxe bat eraiki nahi da denentzat: antzerkiak egiteko, kontzertuak, erakusketak, ikastaroak, hitzaldiak, aisialdirako txokoa... Garagardo Bestarekin lortutakodiru sarrerei **dagokienez**, zera diote: «*Lehendabiziko bi urteak arrasonak*

izan ziren, baina gero dexente jautsi da». Aurtengo Garagardo Besta prestatzen herriko 125 gaztek lagundu eta lagunduko dute. Iruritako herria, Baztandarren Biltzarra, Xorroxin Irratia, Cope Irratia, Cadena 100 Irratia, TTIPI-TTAPA, **Bertizko** Partzuergoa, Iruñako Aurrerzki Kutxa eta Baztango Udalak ere beraien laguntza eman dute ekitaldia behar bezala atezatzeko.

Xotero Etxandiren askatasuna eskatu du Balleko Udalak

Xotero Etxandik Epaitegi Konstituzionalean aurkeztutako errekurtsioaren erabakia hartu bitartean, arraioztarra espetxetik ateratzea eskatu zuen udalbatzarrak, EA eta EHren aldeko botuekin. UPNk ez zuen boturik eman, mozio *politikoak* ez dituelakoz eztabaidatuko.

flash

Xauli Gazte Informazio Bulegoa

zabaldu zen abuztuaren 13an, Elizondoko jaime Urrutia karrikako 26an. Gazte informazio bulegoko arduraduna Irantzu Izeta izanen da eta 948 581458 telefono eta faxean edo izeta@cin.es helbide elektronikoan harremanetan jartzen ahal zara berekin.

Elizondoko polikiroldegia

Baztangoiza erakuntza enpresak egiten ditu Elizondoko polikiroldegiko teitua moldatzeko lanak 3.672.676 pezetaren truke (BEZA barne). Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak 920.000 pezetako dirulaguntza eman du eta lanak abenduaren 31a baino lehen akitu behar dira.

35 lagun bi udal lanposturako

Balleko Udalak oposizio-lehiaketa bidez emanen dituen bi kontserje lanpostu finkoetarako 35 lagunek eman dute izena. Euskara proba eta oposizioaren lehen ariketa egin dute da goeneko.

JATETXEA
 © 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

Galarza

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - © 948 580313
 ELIZONDO



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estioko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

ARGIBEL OPTIKA

© 948 581 391
 Santiago 62 - ELIZONDO



Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

BAZTAN

Elbeteko Gurutze Sainduaren bestak irailaren 10etik 14ra

Egun haundian Perurena aita- semeak ariko dira harri jasotzen

Ortzilerie, irailak 10

Bezpera

6etan txupinazoa. **8etan** baztan zopak Ostatuan (txartela erosi). **12etan** txopo goratzea. Ondotik dantzaldia FRANCISCOrekin.

launbete, irailak 11

Haurren Egune

2etan gazteen bazkaria. **5etan** antzerkia, Nafarroako Gobernuak eta Baztango Udalak lagunduta. **6etan** txokolatada. **8etatik 10etara** dantzaldia. **10etan** mutil dantzak. **12,30etatik 5etara** gaupasa JALISCO BAND taldearekin. Ondotik, *sopa seca* Primenean eta txistorrada Gazteluan herrikoendako.

Igendia, irailak 12

12etan Meza Nagusia. **6etan** Gorriti eta bere animaliak. **8etatik 10etara** dantzaldia Panpi Portugal eta bere taldearekin. **10etan** mutil-dantzak. **10,30etatik 12,30etara** kantaldia Panpi Portugalekin. Ondotik pilota: Gaztelu II-Tristin (ezkerrez), Alberro I-Irisarri III.

Astelehena, irailak 13

Herritarren Egune

9etan ohiko kamarekin behititzea. **2etan** herri bazkaria FRANCISCO akor-



deolariarekin. Arratsalde bazkarikoen herri kirolak. Gauetz dantzaldia.

Asteartea, irailak 14

Gurutze Saindu Egune

11etan Meza Nagusia Gurutze Sainduaren omenez. **1etan** hameketakoa Herriko Ostatuan. **5etan** bapateko musa puntuala!. **6etan** harrijarotzaileak: Iñaki Perurena eta Inaxio Perurena aita-semeak. **8etatik 10etara eta 10,30etatik 12,30etara** dantzaldia GORRAMEN-DI 10 taldearekin. **10etan** mutildantzak. **12,30etan** Gaizua ni.



1996ko herri bazkarian Teresa eta Beatriz sukaldariak. Ondoa, aurtengo inautetan Bea eta Manu ezkonberriak. Zorionak!

flash

Zeberia errekkako

aforo estazioko obretarako kontratua egin dezan baimena eman dio Nafarroako Gobernuak Herrilan Zuzendari Nagusiari. Baimena beharrezkoa da gastua hainbat urtetan egitekoa delakoz. Zehazki, obra hauetan inbertituko diren 37 milioi pezetatik 27,2 milioi 1999ko aurrekontuen kargura ordainduko dira; eta gainerakoak (9,8 milioi) 2000. urteko aurrekontuen kargura.

Musika Eskola

Jeanne Quartier Munarriz izanen da ikasturte honetan Baztango Musika Eskolako zuzendaria. Idazkari lana, berriz, Rosa M^a Sanchez Etxenikek beteko du. Biak, eskolak ere emanen dituzte. Kultura, Hezkuntza eta Euskara zinegotziaren bertze eskari bati erantzunez, ordenagailu berria ere erosiko da Musika Eskolakobeharrak asetzeko.

Balleko turismo baliabideak

azaltzen dituen mapa-gida argitaratu du Balleko Etxeak. Aurkezpena, abuztuaren 20ko batzarren ondotik egin zen eta maparekin batera lau ibilbide ageri dira. «Uraren kantua», «Lainoeta Lorearen Historia», «Liluratutako basoa» eta «Inperioaren Bideen barna» izenburua daramate Baztango xenden barna igarotzen diren ibilbide zoragarri hauek.

ttipi-ttapa internet
<http://www.jalei.com/topagmoa/ttipi-ttapa>
 E-mail: ttipi-ttapa@topagmoa.com

BAZTAN FUNERARIA
 ERORZKETA ZERBITZUAK
 HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 TRASLADOAK
 Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

MENDIALDE Jatetxea

 AMAIUR • © 948453060

SOULE
Hileta artea
 Tfnoak: 948 453444 • 608. 779903
ARIZKUN

Zerri hazleek Bretaina bisitatuko dute EHNEK antolatutako bidaiari

Baserriak bisitatzeaz gain, sektorearen egoerari buruz mahaingurua egingen dute

TTIPI-TTAPA

EHNE eta Bretainako CPE sindikatuek antolatuta zerri hazleek Bretaina bisitatuko dute irailaren 15etik 17ra.

Asteazken goizean, ongi etorria eta CP sindikatuko kideekin izanen duten topaketaren

ondotik, zenbait zerri-granja ikusiko dituzte. Arratsaldean ere bertze granjabatera joanen dira. Ikusiko dituzten granjek sistema ezberdinak erabiltzen dituzte zerriak hazteko: zirklo itxian parrillarekin, lastoarekin, kanpoan, etabar...

Ortzegun goizean «Les fermiers de L'Arcoat» zerri hazleen elkarte bisitatuko dute. Bertan 24 lagunek parte hartzen dute zerriku-meak hazten eta zerri gizenak integrazio sistemaz ateratzen dute. Lastoa erabiltzen dute eta Range labelean daude.

Bi orduetan CPE eta EHNEk mahaingurua egingen dute, Bretainako eta Euskal Herriko zerri ekoizpenaren egoera aztertzeko. Afarria ere izanen dute, Bretainako produktuak dastatzeko.

Ortziralean, azkenik, bertze bi esplotazio ikusteaz gain, Finiste-

rreko Nekazal Ganbarako arduradunarekin bilduko dira.

Bidaiari interesaturik dauden pertsonak, informazio gehiago lortzeko edo izena emateko EHNEren Iruñeko bulegora deitu behar dute, 948 254841 telefonora.

SARA

Esku huskako partida frango jokatu dituzte pilotari gazteek

Besta asteazkenez, xoko partida jokatuko da Pleka trinketean

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Uda huntan, herriko gazteek esku huskako pilota partida frangotan parte hartu dute. Baionako Moderne trinketean, Frantzia mailan antolatzen den *Coupe des Espoirs* edo Etorkizuneko Kopan finalak jokatu ziren. Hor Xabi Errandonea herritarra, Arrue Armendariztarrekin 45-42 irabazi zuten Laville gaskoina eta Mikel Gerendiain senperrari.

Bertze final guziak errebotetan jokatu ziren. Lehutzen, Jon Paterne eta Iñaki Jauregik 27 eta 30 galdu zuten Donibandarren kontra, Euskal Herriko ligan. Donaitxin *Coupe Open* lehiaketa erdietsi zuten Ramuntxo Errandonea eta Mattin Joananak, donapaleutarren aurka 30-



Bortz saratar Kontrabandisten Lasterkaldian

Sarako bortz kirolarik parte hartu dute 37. aldikotz antolatutako Kontrabandisten Lasterkaldian. Sararen izenean aritutako Mixel Larzabal eta Ramuntxo Lamothe bigarren eta hirugarren sartu ziren, taldekako garaipena herrian utziz. Elizondoren izenean aritu zen Jakes Bernet, 18 urteko saratarra bortzgarren sartu zen eta partehartzaile gazteena izan zen.

25 irabazi baitzuten. Azkenik, agorrilaren 20an Sarako errebotetan Union Basque lehiaketako finalak jokatu zi-

ren. Gaztetxoan mailan, Xabier Joanena eta Denis Endarak Makeatarren kontra galdu zuten, 27-30.

Aldiz, helduen mailan Iñaki Arrieta eta Xan Urbistondok 30-21 gaitu zuten Hazparneko bikotea.

flash

Sarako Gaztetxea

idekia izanen da Sarako bestetako aste hondarrean, buirilaren 11 eta 12an. Igandean, bazkaria antolatua izanen da eta tiketak salgai izanen dira Herriko Etxeko Edantegian eta Trinketean.

Xoko partida Pleka trinketean

Besta asteazkenez, eguerditan Herriko Pleka trinkean Xoko partida ederra ikusteko parada izanen dugu. Urruñako Patrik Ezkurra eta Azkaineko Jean Claude Indak desafio bat egin baitute, bakoitzak 1.000 libera pariatuz. Sarrera urrik.

Zikiro jateko txartelak

Besta astelehenez, Olhain ikastolak antolatu zikiro jaterako txartelak Herriko Etxeko Edantegian egonen dira saltzeko.

SARA

Herriko bestak buruilaren 11tik 15erat ospatuko dire aurten

Igandean, Alaitz eta Maider taldeak kantaldia eskainiko du

Larunbata, buruilak 11 5etan trinketea, lehiaketaren final erdia: Inda eta Bideondo, Martiarena eta Escos-enkontra. **Arratsko 10,30etan** kontzertua HAURTZARRAK taldearekin. **11,30etan** dantzaldia TABASCO taldearekin. Gau guzian txaranga hor izanen da.

Igandea, buruilak 12 Goizeko 10etan Meza Nagusia Urruñarrak kliakarekin eta Sarako kantariarekin. Gero, itzulín itzuli Marinelak Tanborradarekin eta Sara, Baigorri eta Iruñeko gaiteroekin. **10,30etan** Luzean Errebotean Hendaia Azkaineren kontra. **4etan** Karrikan ibilaldia: Agoitzeko Ziganteak eta Joaldunak. Ondotik ahate jokia eta gero herri kirol ikuskizuna. Sokatira: Sara-Zuraide. Lau aizkolariren arteko desafioa: Jaunarena eta Belarra, Senosiain eta Telletxearen kontra. Koxe Vicendoak trunkua xutik moztuko du. Iñaki Perurena harri altatzalefamatu Inaxiobere semearekin arituko da. **7etan** aperitifa Zaldibiako trikitalarien musikarekin. **10etan** kantaldia ALAITZ ETA MAIDER taldearekin. **11,30etan** dantzaldia BOLBORA taldearekin. **12etan** suzko zezena. Gau guzian Tolosako NEKAEZINAK txaranga hor izanen da.

Astelehena, buruilak 13 Goizean itzulín itzuli gaitero eta txistulariekin. **10,30etan** Luzean Errebo-

tean Ustaritz, Aviron Bayonnais taldearen kontra. **1,30etan** Zikiro-jatea Olhain ikastolak antolatua, oihal etxeak aterpeturik. **5,30etan** esku huska trinketea: Lafitte eta Ezcurra, Itoiz eta Zugastiren kontra. **5,30etan** Zazpiak Bat dantza taldearen emanaldia. **6,30etan** Fandango Xapelgoa. **8etan** trikitalariekin aperitifa. **10etan** kantaldia ALAIK taldearekin. **11,30etan** dantzaldia KUKUMIKU taldearekin.


Asteartea, buruilak 14 Goizean Gaitero eta txistulariekin itzulín itzuli. **10,30etan** Luzean Errebotean: SPUC (Senpere), selekzio baten kontra. **5,30etan** Joko Garbi: Ustaritze-Aviron Bayonnais. **7etan** Mutxikoak. **8etan** aperitifa trikitalariekin eta itzulín itzuli Ezpeletako txarangarekin. **10etan** kantaldia Eneko LABEGUERIEkin. **11,30etan** dantzaldia XITOA taldearekin eta suzko zezena.

Asteazkena, buruilak 15 Gaitero eta txistulariekin itzulín itzuli. **9etan** Trinketeko zabaldean Sarako Azienda Primak: 11.000 Libera primetan. **5etan** esku huska pilota partida: Teillery eta Mugika, Etchegoin eta Maytèren kontra. **6etan** esku huska trinketea: Agerre eta Arranburu, Karrikart eta Martiarenaren kontra. Trinketea eta plazan bertulariak: Ezpona, Xanpun, Alkat, Amorena eta



BESTETAKO IRUDIAK:
GAINEAN JOAN DEN
URTEKOAK ETA ONDOAN
1990KOAK

Josetxo. Ondotik, zozketa. Erramun Martikorenarekin kantuak. **10etan** dantzaldia Panpi LADUCHEkin. **12,30etan** dantzaldia EGAN taldearekin. Suzko zezena. Gau guzian, karriketan ibilaldia LOS INCANSABLES txarangarekin.



HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
64310 SARA • Tél. 05 59 54 25 19

ZUGARRAMURDI

Pilota partida eta Eslobakiako taldea bestetako berrikuntzak

Herritar talde batek Joko-besta egitea eskatu zuen

MARGARI ETA KORO

TTIPI-TTAPAK bakanzak hartu dituen tarte huntan gure herrian gertatu den berririk garrantzitsuena bestak izan dira. Erran behar da urtetik urtera bestak hobetzen gaki direla, bai antolatzen diren gauzetan eta baita jendearen partehartzearen aldetik ere. Aurtengo berezitasunak bida izan dira: sekulako pilota partida (Errandonea-Alustizak eta Arretxe-Unanuek pilotalekua jendez gaindizka bete zuten eta Eslobakiatik etorritako musika eta dantza talde bat. Bertzalde, mozo-roen gauean talde batek Joko-besta erreibindikatu zuen eta heldu den urtean hori ere programa barnean sartzekoaren alde agertzen direnak ere badire (Sara eta Zugarramurdi arte-



Zugarramurdiko paisaiak margotzen aritu dira hogeita bi margolari abuztu honetan.

Artxibokoa

an egin beharrean, ezkondu eta ezkongabeen artean egitekoa aipatzen zen.

Margoketa ikastaroa burutu da
Madrilgo Artestudio

enpresak antolatuta, abuztuan margoketa ikastaroa burutu da. Ikastaro honetara toki ezberdinetako 22 ikasle etorri ziren eta giro berezia ematen zion herriari edozein txokoe-

tan margolari bat ikus-teak. Ikastarora etortzen direnak landaturismo etxeetan biltzen dira eta azkeneko lau urteetan Baztanen izan ondotik, aurtin Zugarramurdira etorri dira.

flash

Xaretari buruzko ikerketa proiektua

Xareta lurraldeari buruzko ikerketa proiektua eginen dute Zugarramurdi eta Urdazubiko Udalek. Adjudikazioa baino lehen egin beharreko paperak eta tramiteak Urdazubiko Udalak eginen ditu eta Andres Diharsarri izanen da kontratazio mahaineko lehendakaria. Lanen adjudikazioa, aldiz, bi udalek eginen dute. Emandako dirulaguntza jasotzeko ikerketa hau urte honetan akitu behar denez, lanak lehenbait lehen hastea deliberratu du Urdazubiko Udalak.

Urdazubiko zaborrontziak

Contentur enpresari erosiko dizkio Urdazubiko Udalak hondakin arruntak biltzeko hogeitazaborrontziak, 951.200 pezetaren truke. Bi enpresen eskaintzaren artean, honek egin zuen onena.

Euskaraz ikasteko eskubidea

Nafar guziok modu egokian euskaraz ikasteko dugun eskubidea aldarrikatuz Oteizako Udalak idatzitako mozioarekin bat egin dute Urdazubi eta Zugarramurdiko Udalek.

Kilometroak

10.000 pezetako dirulaguntza eman du Zugarramurdiko Udalak Kilometroak, Gipuzkoako Ikastolen aldeko besta laguntzeko.




MARTIKO
Gure baserrietako produktuak

© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

OLARI

Jatetxea



Tfnoa: 948 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

EZKONTZAK

Jose Maria Erkizia Otxoteko eta **Arantxa Conde Rekondo**, Lesakakoak, abuztuaren 21ean.

Jose Agustin Mitxelena eta **Maria Sunsundegi Irigoien**, Lesakakoak, abuztuaren 21ean.

Vicente Gelbenzu Garro eta **Aitziber Maisterrena Arraztoa**, Doneztebe eta Lekarozkoa, uztailaren 31n.

Jaime Gamio Bikondoa eta **Marie Laure Bidegarai Pic**, Iruritakoak, abuztuaren 7an.

Manuel Castro Bidegain eta **Beatriz Etxenike Iñarrea**, Antsoaingoak Iruritan, abuztuaren 21ean.

Ander Barrenetxe Luberriaga eta **M^a Susana Gomoyón García**, Azkaine eta Berakoa, uztailaren 31n.

Carlos Fermin Sagastibeltza Villanueva eta **Ana Isabel Alduntzin Navarro**, Leitzakoak, uztailaren 31n.

Jose Manuel Igoa Larralde eta **M^a Begoña Apezetxea Perurena**, Lesaka eta Goizuetakoa, uztailaren 24an.

Eva Maria Ansa Egurretxea eta **Jose Ignacio Oiarbide**, Arano eta Pagollagakoa, uztailaren 30ean.

JAIOTZAK

Lorea Lizarreta Insausti, Iruritakoa, uztailaren 16an.

Imanol Casillas Lakosta, Zigakoa, abuztuaren 3an.

Jon Vera Rodriguez, Almandozkoa, abuztuaren 7an.

Aimar Aroztegi Elizondo, Lekarozkoa, abuztuaren 5ean.

Garazi Barberena Urrutia, Erratzukoa, abuztuaren 9an.

Unai Gaztelu Iturregi, Oronoz-Mugairikoa, abuztuaren 23an.

Beñat Pikabea Sainz, Berakoa, uztailaren 14an.

Itziar Etxebeste Irazoki, Berakoa, abuztuaren 3an.

Neskur Etxenike Igantzi, Berakoa, abuztuaren 8an.

Alaitz Oiartzun Ugartemendia, Leitzakoa, uztailaren 7an.

Izar Ugartemendia Sagastibeltza, Leitzakoa, abuztuaren 12an.

M^a Isabel Larraya Navarro, Leitzakoa, abuztuaren 6an.

Mikel Rubia Gutierrez, Leitzakoa, abuztuaren 14an.

Iker Salaberria Orbegozo, Goizuetakoa, abuztuaren 29an.

Eneko Apezetxea Bakero, Goizuetakoa, abuztuaren 14an.

Iker Bizente Maia, Etxalarkoa, uztailaren 13an.

Markel Iturria Razkin, Etxalarkoa, abuztuaren 22an.

Karmele Santesteban Bendoiro, Zubietakoa, uztailaren 13an.

Unai Iribarren, Sarakoa, abuztuaren 1ean.

HERIOTZAK

Volodimir Gorak, Baztanen, uztailaren 14an, 43 urte.

M^a Natividad Prieto Erdozain, Elizondon, abuztuaren 2an, 86 urte.

Juana Felisa Etxenike Iparragirre, Iruritakoa, abuztuaren 4an, 87 urte.

Dionisia Hornillos Ayuso, Elizondon, abuztuaren 8an, 68 urte.

Leon Ostolaza Goienetxe, Doneztebe-koa, abuztuaren 8an, 86 urte.

Silverio Gulina Mutiloa, Elizondon, abuztuaren 14an, 82 urte.

Joaquina Elizondo Errandonea, Elizondokoa, abuztuaren 17an, 88 urte.

Lucia Orkoien Hernandez, Elizondon, abuztuaren 17an, 94 urte.

M^a Carmen Dagerre Maia, Elizondokoa, abuztuaren 18an, 59 urte.

Manuel Urolategi Pastor, Elizondon, abuztuaren 17an, 71 urte.

M^a Leandra Atxukarro Arzallus, Erratzukoa, abuztuaren 24an, 90 urte.

Alfonso Bidagain Elizalde, Arizkungoa, abuztuaren 25ean, 55 urte.

Martin Robustiano Etxenike Iribarren, Azpilkuetakoa, abuztuaren 26an, 78 urte.

Jesusa Esparza Ros, Elizondon, abuztuaren 29an, 85 urte.

Jose Martin Arandia Irigoien, Berakoa, uztailaren 28an, 76 urte.

Jose Antonio San Juan Zubieta, Berakoa, abuztuaren 16an, 48 urte.

Justina Quirce Gonzalez, Beran, abuztuaren 23an, 92 urte.

Marie Gratiene Garbiso, Sarakoa, abuztuaren 21ean, 68 urte.

Hèlène Rekarte, Donibane Lohitzune-koa Saran, abuztuaren 23an, 83 urte.

Pierre Ibarburu, Sarakoa, abuztuaren 4an, 58 urte.

Irene Lukanbio Maiz, Arantzakoa, irailaren 2an, 67 urte.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



Eskelak

enkargatzeko deitu
948 63 11 88 telefonora

Arraiozek lehen aldiz irabazi du Baztan-Errekako Laxoa txapelketa

- Final ikusgarrian 9-8 irabazi zion Doneztebeko taldeari
- Iruritik hirugarren postua eskuratu zuen 'Doneztebe B'ri irabazita

Arraiozko taldea garaile suertatu da Baztan-Errekako hogeigarren laxoa txapelketan, Arraiozen bertan abuztuaren lehen jokatutako finalean Doneztebera 9 eta 8 irabazi ondotik.

Espero bezala, finala ikusgarria izan zen. Azken bi urteotan talde indartsuenak izan direnak zeuden aurrez aurre, joan den urteko finalaren errepikapenean. Azkenekobortz txapelak erreldoan irabazi zituen Doneztebeko taldeari (azken urteotan bezala, Jabi Mariezkurrena, Peio Iribarren, Patxi Ganboa eta Luis-mi Apezetxeak osatua) kontra egiten ahal zion talde bakarra zen Arraioz (Saldias, Mortalena, Karrikaburu eta Gamioekin) eta hone-laxe suertatu zen. Lehendabiziko jokua baztandarrek egin bazuten ere, laster Malerreka-koak aitzinetik paratu ziren, 4-1, 5-2, 6-4 eta 8-6. Bazirudien doneztebarrek hamahirugarren txapela jantzi behar zutelana, baina Arraiozek lortu zituen azken hiru jokuak, partida eta honenbertez, lehendabiziko txapela irabaziz.

IRURITA HIRUGARREN

Aitzinetik, hirugarren eta laugarren posturako partidua borrokaturatu jokatu zuten Irurita A (Jorge Azkarate, Urrutia, Elizaintzin eta Etxandirekin) eta Doneztebe Bk (Ganboa II, Telletxea, Mariñelarena eta Irigoien). Hemen



Txapeldunak eta azpitxapeldunak Arraiozko plaza, sariak jaso ondotik. Argazkia: Foto Mena

ere baztandarrek izan ziren nagusi, 9 eta 7.

Helduen ondotik, orain haurren txanda izanen da, aste honetan hasi baita haur mailako txapelketa. Asteazken arratsalde eta larunbat goizetan ariko dira hamabi eta hamalau urte arteko mutikoak. Irurita eta Arraiozek bina talde plazaratu dituzte, Doneztebek bat eta seguraski, Oitzek bertzea. Hauek hiru jokalarri ba-

dituzte, baina laugarrenaren bila ari ziren hau idazterakoan. Liga moduan jokatuko dute, lau onenak finalerdian ariko dira eta gero finala etorriko da.

Laxoa Elkarreak aurtun antolatuta dituen kompetizioei akabaila emateko azaroan hasiko da paxaka txapelketa. Dagoeneko tresnak eskuratu dituzte, baina taldeak eta egitaraua zehaztea falta da. ●

BOITE
pronon

❖ Aimar Olaizola txapeldun Donostian

Aimar Olaizola goizuetarrak eta Aitor Elkorok irabazi zuten abuztuaren 24an ASPE enpresak antolatutako Donostiako Hiria pilota txapelketa. Finalean 22 eta 21 irabazi zioten Patxi Eugi eta Iñaki Otxandorena oronoztarrari.

❖ Ander Agesta txapeldun Antiguan

Afizionatu mailan dagoen txapelketa-rik garrantzitsuenetakoa batean nagusitu da Ander Agesta aranztarra. Martinez de Eulatekin bikote eginez, 22 eta 9 irabazi zioten Sorarrain eta Zapirain gipuzkoarrei, etorkizuneko mailan.

❖ Juan Carlos Garro garaile Burlatan

Liberto taldean ari den Juan Carlos Garro beratarra suertatu zen garaile Burlatako 3. La Campana-Super Mabo mendi bizikleta Sari Nagusian. 111 txirrindularik parte hartu zuen proban eta federatuek 40 kilometro egin behar izan zituzten.

❖ Joxe Antonio Mindegia

Beintza-Labaiengo aizkolariak irabazi du Nafarroako 3. mailako aizkolari txapelketa. Mindegia 9 minutu eta 9 segundu behar izan zituen bi kanaerdiko eta bi 45 ontzako enborrak mozteko, bigarrenari minutu erdiko alde ataraz.

TXAPELDUNAK

1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OITZ
1984	OITZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OITZ
1989	DONEZTEBE
1990	OITZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ

Lopetegi pasaitarra nagusi Sarako Kontrabandisten Lasterketan

- 42 minutu eta 45 segundutan egin zuen ibilbidea
- Sarak irabazi zuen taldeka, Irunen aitzinetik

TTIPI-TTAPA / SARA

Abuztuaren 22an hogeita hamazazpigarren aldikotz kurritu zen Kontrabandisten Lasterkaldiko irabazlea Zugarramurdiren izenean parte hartu zuen Iñaki Lopetegi pasaitarra izan zen, ibilaldia 42 minutu eta 45 segundutan burutu ondoren.

Bere aldetik, joan den urteko irabazleak, Mixel Larzabalek ez zuen bere laugarren garaipena lortu ahal izan. Haatik, biziki emaitza ohoragarria erdietsi zuen, bigarren ailegatzea ez baita nolana nahiko balentria. Gainera, 48 segundu baino ez zituen galdu irabazlearekiko. Saratarra lehen postuan zen Zazpi Fago deitu lekurat helztean.

Bertzalde, lasterkaldian hirugarren bururatu zuen Ramuntxo Lamothe saratar gaztearekin (46'29"), taldeka le-



Beroari eta malda gogorrei aurre egin zioten Sarako Kontrabandisten Lasterketako partehartzaileek.

henbiziko tokian gelditu ziren, Angel Maria Aizpiolea eta Ricardo Toro Irungo ordezkari aitzinean.

Parte hartu dutenen artean, goraiatzekoa da Mixel Lartigau 52 urteko senperraren 34. lasterkaldia izanen dela aurtengoa.

Nafarroako aizkolari txapelketaren finalerako boskotea osatu da

Mikel Mindegia, Floren Nazabal, Antonio Senosiain, Antonio Jaunarena eta Jose Juan Barberena ariko dira Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren finalean. Abuztuaren 22an Lakuntzan egindako kanporaketan hamar aizkolari aritu ziren txartel horien bila. Egin beharreko lana, ki kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat (72

ontza) moztea zen.

Aizkolariak hiru txandetan banaturik aritu ziren. Lehenengoan Mikel Mindegia, Antonio Senosiain eta Floren Nazabal. Bigarrenean, Antonio Jaunarena, Jose Juan Barberena eta Juan Jose Lopez. Hirugarrenean berriz Felix Etxeberria, Patxi Mindegia, Luis Mari Belarra eta Manuel Kañameres.

SAILKAPENA		
1. Iñaki Lopetegi	Zugarramurdi	42' 45"
2. Mixel Larzabal	Sara	43' 33"
3. Ramuntxo Lamothe	Sara	46' 29"
4. Angel Maria Aizpiolea	Irun	47' 26"
5. Jakes Bernet	Elizondo	47' 45"
6. Juan Bautista Telletxea	Bera	48' 00"
7. Joseph Iramuno	Hendaia	48' 31"
8. Santiago Iratzoki	Bera	48' 51"
9. Ricardo Toro Sanchez	Irun	49' 19"
10. Jean Azkarate	Azkaine	49' 23"

Enborra	54'	60'	72'	60'	54'
1. Mikel MINDEGIA	1'19"	3'45"	7'31"	9'59"	12'33"
2. Floren NAZABAL	1'27"	4'10"	8'27"	11'10"	13'23"
3. Antonio SENOSIAIN	1'28"	4'11"	8'41"	11'42"	13'59"
4. Antonio JAUNARENA	1'31"	4'25"	8'59"	11'46"	14'21"
5. J. Juan BARBERENA	1'32"	4'26"	8'55"	12'06"	14'24"
6. Felix ETXEBERRIA	1'36"	4'46"	9'37"	12'42"	15'12"
7. Juan Jose LOPEZ	1'36"	4'27"	9'37"	13'08"	15'49"
8. Luis Mari BELARRA	1'33"	4'42"	10'24"	13'53"	16'33"
9. Patxi MINDEGIA	1'23"	4'45"	10'25"	13'39"	16'53"08
10. Manuel KAÑAMARES	2'04"	5'23"	10'37"	14'12"	16'53"82

Finalera honela sailkatu ziren: Mindegia zaharra (12'33"), Nazabal (13'23"), Senosiain (13'59"), Jaunarena (14'21") eta Barberena (14'24"). Gaur egungo txapelduna, Donato La-

retxea, ez da Doneztebeko ferietan jokatu den finalean ariko lesio baten ondorioz.

Bigarren mailara ez jausteko ere borrokagorria egin behar izan zuten Luis Mari Bela-

Igantzioko mendi bizikleta ibilaldia irailaren 12an

Irailaren bigarren igandean, goizeko 10,30etan izanen dute hitzordua Igantzin mendi-bizikletazale guziak. Denbora batean herri gehienetan antolatzen baziren ere, gutti dira orain inguruan egiten diren ibilaldiak, are guttiago Igantzikoak izaten duen partaidetzarekin. Denborak lagunduz gero, 120 txirrindularirik goiti biltzen dira urtero Igantzi inguruan 11 kilometroko ibilbideari itzuli pare bat ematera, sei kategori ezberdinetan banatuta eta 11 urtetatik hasita. Ibilbidea ere kategoriaren arabera egin behar izaten da.



Juan Carlos Garrok bi aldiz irabazi du Igantziko proban.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

ELBETE

► Irailaren 10etik 14ra Xehetasunak 23. orrialdean.

ILEKUETA

► Irailaren 11 eta 12an.

SARA

► Buruilaren 11tik 15era Xehetasunak 25. orrialdean.

OITZ

► Irailaren 7tik 12ra Xehetasunak 18. orrialdean.

IKASTAROAK

BERA

► Irailaren 12tik aitzinera, astelehenero, oinarrizko sukaldaritzak ikastaroa lñaki Pikabearen eskutik. Gure Txokoko bazkideek 7.000 eta gainerakoek 8.000 pta. Izena emateko: 948 631 188 (Asier).

MALERREKA

► Langarra Euskara Taldeak Yoga, Zerami-ka, Txalaparta eta Bertsolaritzak ikastaroak antolatu ditu hurrengo ikasturterako. Informazio gehiago Malerreka orriaideetan.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tf.ora. deitu behar da

► Irailaren 6tik 12ra Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► Irailaren 13tik 19ra Leska, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► Irailaren 20tik 26ra Bera, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Ur-dazubi eta Goizueta.

AGENDA PRAKTIKOA

AZKEN BESTAK



Udako azken bestak heldu dira-eta... probexutu!

Hemen inguruan Igantziko bestak izaten dira uda sasoko azkenekoak, baina hien aitzinetik Elbeten, Saran eta Oitzen ere ospatzekoak dira herriko bestak. Gainera, Bera aldean Ilekuea auzokoak ere aipatu behar ditugu, aspalditik egiten diren bestak direlako.

Larunbat honetan, Sarako errebotean, Hautzarrak iparraldeko rock taldea ariko da bazterrak nahasten. Ondotik, Tabasco berbera taldearekin dantzaldia izanen da eskenatoki berean, eta herrian barna txaranga ibiliko da giroa berotzen. Larunbat arratsean bezalaxe, igandea ere mugitua izanen da Saran. Alaitz eta Mainerrek beren erreperitorioa eskainiko dute, eta uda bukatzeko desiota egonen badira ere, seguru Saran jotzeko indar pixar bat gordea badutela oraindik. Ondotik Bolbora taldeak joko du dantatzeko musika.

Heldu den asteburuan, berriz, Iruritara begira egonen dira inguruko gazte gehienak. izan ere, han ospatuko da seigarren aldiz garagardo besta. Aurtengoan Raimundo Amador da karte-leko izenik interesgarriena.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kiloko): 3.000 pta.
- Zerri gizona (95-100): 151,5 pta./kiloa.
- Zerramak: 90 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pta./kg. Kanal
Extra 550
1.koa 520
2.koa 490
- Urruxak: Pta./kg. Kanal
Extra 560
1.koa 530
2.koa 510
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruzak 15.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
Mestizoak: urruzak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Camembert helburu»

Jon ALONSO

Susa

Nobela eta saiakeraren artean kokatu behar da «Camembert helburu» izenburuko liburu hau, bi iturri hoietatik edan baitu Jon Alonso iruindarrak liburu hau idazteko orduan.

Idazleak berak hasieran abisatzen duen bezala, «nobelaz moztortu den saiakera bat da». Henri Toulouse-Lautrec margolari frantziarraren bizitza eta obra ageri diren neurrian saiakera dela erran dezakegu, baina idaz-

leak sakeletik ateri eta istorio honetan jarri dituen fikziozko pertsonaiek (Enekoitz Ramirez protagonista adibidez) errealitatek urrutzen dute kontakizuna. Margolaritza eta poesiaren inguruko hainbat gogoeta aurkitzen ahal da tartean.

Hori bai, liburuaren barrenean sartu eta zuku guzia ateri nahi izan ezker arreta haundiz eta pazientziarekin irakurri beharrekoa da «Camembert helburu».

Euroaz informatzen

Aurtengo urtarrilaren 1ean hasi zen euroa gizartearatzeko jarri den epea. 2002. urtea bitarte izanen dugu eurotara egokitzeko astia, hortik aitzinera Europako moneta bakarra bihurtuko baita.

Aldaketa prozesu hori ez da baxterre erraxa izanen, eta horretan laguntzeko, Nafarroako Aurrezki Kutxak **Acción Euro** izeneko ekimena sortu zuen duela urtebete bainogehiago. Ekimen honen buruan Juan Carlos Rubio koordinatzailea dago, euroari buruz solasaldiak emateko hezitako monitore talde batekin batera.

ESKANTZEN DIREN ZERBITZU DESBERDINAK:

Kontsumitzaile, dendarri eta enpresa ttikiei zuzendutako Euroasesor Zerbitzua da horietako bat. Euroaren gaineko zalantzak dituen nornahik 908 208 400 telefonora deitu dezake, eta profesionalen eskutik behar duen



2002. urterarte izanen dugu eurotara egokitzeko astia.

informazioa jasoko du dohainik. Internet bidez ere egin daitezke kontsultak. Honako helbide elektronikoa: **euroases@can.es**. Gainera, Nafarroako Aurrezki kutxak sa-



rean duen web orrian euroari buruzko informazio ugari aurki daiteke (www.accio-neuro.can.es).

Bertzalde, euroari buruzko tailer praktikoak ere egin dira Nafarroa osoan. Orain arte 600 enpresa eta 200 komertzio baino gehiagok parte hartu dute horietan. Arestian aipatutako monitoreek 200 solasaldi baino gehiago eskaini dituzte dagoeneko. Gure eskualdean Arantza, Lesaka eta Donezteben izandu dira hitzaldi informatibo horiek.

Beran eta Donezteben, berriz, dendariei zuzendutako tailer praktikoak egin dira, eta Irurita, Leitza, Elizondo, Bera eta Doneztebeko zenbait enpresa ttikiek ere parte hartu dute tailer horietan.

DISKAK



«Amets bat»

PETTI

GAZTELUPEKO HOTSAK

Aste honetan bertan jarri da salgai Petti beratarren lehen diska. Gaztelupeko Hotsak disketxe gipuzkoarraren eskutik ateri baldin badu ere, grabaketa guziaz Berako aduanan egina da, joan den urteko iraila eta aurtengo martxo bitartean. Maikel aritu da soinu moldaketak eta produkzio lanak egiten. Orain arte deus grabatzeko aukerarik ez du izan Pettik, baina badira urte batzuk gitarra

bizkarganean hartuta ostaturatu eta herriz-herriz dabilela. Zuzenean agertzen duen indarrak (eta abestien letra originalek) bat baino gehiago hartuta utzi dute gainera. Bere errepertorio zabaleko 11 kantu sartu ditu disko honetan, eta inguruko musikari aunitzen laguntza izandu du abestiak osatzeko orduan, Irazoki anaiak, Telletxea anaiak, Joseba Irazoki, Beñardo Goietxe...

AGENDA EGUNEZ EGUN

JARDUNALDIAK

ELGORRIAGA

► **Irailaren 12an** eta **19an** Onddoen Kofradiak antolatutako ekitaldiak egun guziz.

KONTZERTUAK

IRURITA

► **Irailaren 18an** Garagardo besta: Rare Vacation, Boll, Nako Goñi y los Bluska Vidas, Raimundo Amador, Amparanoia, Radio Terror, Kargols, Buitraker, Txalaparta. 19etan.

ERAKUSKETAK

BERA

► **Irailaren 19a arte** Euskal Herriko Zinearen Historia, 1896-1998. Asteartetik igandera, 18etatik 21era.

ZINEMA

BERA-DONEZTEBE

► **Irailaren 6, 7, 8 eta 9n** Bidasoako Filme Laburren II. Zinemaldian parte hartzen duten 35 laburmetriak eskainiko dituzte Bera-ko Kultur Etxean eta Doneztebeko zinemaren. Arratsaldeko 8etan.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

► **Irailaren 12an** Kubilixto taldeak 'Kukulbel' izeneko txotxongilo ikuskizuna eskainiko du 18etan pilotalekuan.

LESAKA

► **Irailaren 15ean** Txan Haundia magoak bere saioa eginen du Arranon. 18etan.

MENDI BIZIKLETA

IGANTZI

► **Irailaren 12an** Mendi Bizikleta probaren 12. edizioa.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezeta Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

ENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

Bi zerbitzari behar dira lbardinen lan egiteko. Urte osoko kontratua. Ordutegia: 9etatik 17etara. Frantsesa ulertzea hobe, baina ez derrigorrez. ☎ 619 829 289 (Itziar).

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Citroen BX 1.9 Diesela salgai. NA-U. Egoera onean. ☎ 948 637 852.

R-18 diesela salgai. NA-M. Egoera onean. ☎ 948 627 530 (21etatik aitzinera).

MOTORRA

502 TAILERRAK

BERABI tailerrak
☎ 948 631 445•BERA

Nissan Vanette C-5,
Ibiza D, Nissan Trade
2.000, Mitsubishi 2.5 TD
merkea.
BERRIETAN OFERTAK

GANIX Tailerrak

Iturizandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

IRURITA.
- Lur eremu eraikigarria salgai.
☎ 948 451 841

GOIKO SL

LEITZA. 2 pisu dauzkat salgai, eta herritik bi kilometrorra borda bat.

☎ 649 476 615 • 948 510 346

ELGORRIAGA. Pisua salgai. 100 m²koa + 31 m²ko ganbara. Kalefakzioa eta sukaldea guztiz hornitua. ☎ 948 637 571.

GOIZUETA. Pisua salgai. 3 gela, sukaldea, jangela eta komuna. Bi kotxerendako garajearekin. ☎ 948 514 213.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordinak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

ELIZONDO. Pisua errentan emanen nuke. ☎ 948 453 110 edo 948 453 150.

IRUÑEA. Pisua errentan emateko unibertsitate inguruan. ☎ 948 631 510.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

DONEZTEBE. Neska batek Donezteben edo inguruan pisu bat hartuko luke errentan, konpartitua baldin bada hobe. ☎ 948 450 028 (Irina).

ETXEBIZITZAK

107 ETXE KONPARTITUAK

IRUÑEA. Pertsona bat behar da alde zaharrean pisua osatzeko. ☎ 630 484 271 (Maite).

IRUÑEA. Milagrosa auzoan bi logela ditugu libre pisu batean. ☎ 948 397 031.

IRUÑEA. Milagrosa auzoan neska bat behar dugu pisua osatzeko. Merkea. ☎ 948 592 227.

IRUÑEA. Bi lagun behar ditugu pisua osatzeko, Unibertsitate ondoan. ☎ 948 599 107.

IRUÑEA. Barañainen pisua osatzeko lagun bat behar dugu. ☎ 948 510 204.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LESAKA. Lurrazpiko garajea salgai Antoiu karrikan. Deitu arratsaldeko 8,30etatik goiti. ☎ 948 637 003.

IGANTZI. 20 m²ko garajea eta 16 m²ko sotoa salgai. Arropa hedatzeko tokia eta terraza konpartitua ere baditu. ☎ 948 637818.

BERA. Bidasoa karrikan 250 m²ko bajera salgai. ☎ 948 630 589.

Ostatua errentan emateko Lesakako Bittiria karrikan. ☎ 948 637 263.

LANA

301 ESKARIAK

Emakume arduratsu batekin eginen luke haurrak edo adinekoak zaintzeko. ☎ 948 631 137.

LANA

302 ESKAINTZAK

KULTURKARI

Lan eskaintza

ZUZENDARI
KOMERTZIALA
BEHAR DA

Baloratuko da:

- Eskualdea ezagutzea.
- Salmentan esperientzia.
- Antolaketa kapazitatea.
- Marketing eta enpresa administrazioan ezagutza.
- Autoa izatea.

Bidali Curriculumak
lehenbailehen helbide
honetara:

KULTURKARI
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

Beran taxi plaza traspasatzen da. ☎ 948 630 629 (gauzez).

Sukaldari laguntzaile bat behar da lbardinen lan egiteko. Urte osoko kontratua. Ordutegia: 8,30etatik 17etara. Sukaldean esperientzia izatea edo ikastaroren bat beharrezkoa. ☎ 619 829 289 (Itziar).

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
 Corsa GSI, Renault 19 Diesel,
 Renault Express D, VW Golf GTI
 Land Rover motza.
 Suzukiak: Vitara eta
 Samurai aukeran.

ANIMALIAK

601 OPARI EMATEKO

Artzain txakurrak opari-
 tzeko ditut, bi hilabeteko-
 ak. Iriarte baserrian (Zu-
 bieta). ☎ 948 393 081
 (eguerdian eta 19etatik au-

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

rrera).

Oilagor ehizako zakurra
 salgai. 15.000 pta. ☎ 606
 094 024.

Bertziko zaldiak salgai. ☎
 948 592 322.

Erbiko zakurrak salgai. ☎
 948 387 026.

Behorra salgai, lanean he-
 zia. ☎ 948 510 276.

Pekadako zakurra salgai
 Saran. Konfirmatua. ☎ (00
 33) 559 542 777.

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Beran, Matzada inguruan,
 kotxeko giltza batzuk aur-
 kitu ditut (ETBko txoriaren
 giltzariarekin). Berako He-

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

rriko Etxean daude.

1.000 litroko depositoak
 salgai. ☎ 948 450601 / 600
 386 955.

11 metroko balkoirako ba-
 randila berria salgai. Alu-
 miniozkoa. Prezio onean.
 ☎ 948 631 510.

Andregai jauntzia eta osa-
 garriak salgai. Egoera one-
 an. Prezioaz solastuko ga-

HARREMANAK

801 AGURRAK

ra. ☎ 948 631 353.

Narbarteko Jaione Landari:
 abuztuaren 10ean 17 ur-
 te bete zituen. Zorionak da-
 kizun neskatielen partetik.

Zorionak Berroetako Aran-
 tza Gamiori uztailaren 28an
 14 urte bete dituelako. Zo-
 rionak laguneren partetik.
 Txanpain botila noizko?

Ornozko Isabel Irigoie-
 nek 15 urte bete ditu uz-
 tailaren 27an. Zorionak la-
 guneren partetik.

Mutil gazte batek adiskide-
 tasun eta postatruke harre-
 mana izan nahi du mutilen-
 kin. Idatzilruñeko 1174 pos-
 ta kutxatilara.



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali seiloak eta sobra zure helbidearekin.



Alkaigako **Va-**
lentin Pika-
beari zorionak
 irailaren 19an 48
 urte beteko
 dituelako. Fami-
 liaren partetik.



Alkaigako **Mikel**
Pikabeari
 zorionak irailaren
 9an 12 urte
 beteko dituelako.
 Familiaren
 partetik.



Elena Zabala
Ezkurra donez-
 tebarrak 2 urte
 bete ditu abuztu-
 aren 26an. Zorionak
 Emilio, ama eta
 aitaren partetik.

Argazkiak eta testuak TTIPI-TTAPAra postaz igorri
 behar dira. Horretarako, sobre batean 35 pezetako
 15 seilo sartu, eta bidali honako helbidera:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA • Urtebetetzeak
 Herriko Etxeko plaza, 1
 31780 Bera

ttipi-ttapa



Ameriketara

bidaltzea
erdi
prezioan
 gure
 bitartez

*Frankeo Kontzertatuari esker,
 errebista berbera guk bidali ezkeru,
 zuk bidalita baino erdi
 prezioa kostako zaizu.*

Iparraldetik deitzeko 19-34-48-
 Hegoaldetik deitzeko 948-

631188



LEITZAKO UDALA

URDIÑOLAKO BASO BIDEAREN HOBEKUNTZA
 LANEN ADJUDIKAZIORAKO LIZITAZIO-ZEIA

Leitzako Alkateak 1999ko abuztuaren 25eko ebazpenaren
 bitartez hurrengo lizitazio deia egitea onartu zuen:
Kontratuaren objektua: Urdiñolako baso bidearen hobekun-
 tza lanak.

Esleitzeko bidea: Jarduera administratiboa prentsan egin-
 dako publikitatearekin.

Kontratazio-espediente mota: arrunta.

Kontratoaren aurrekontua: 7.740.890 pezeta, BEZ barne.

Lanak hasteko azken eguna: 1999ko urriaren 1a.

Lanak egiteko epea: hilabete bat.

Proposamenak aurkeztea: Eskeintzak Leitzako Udalaren
 Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira 1999ko irailaren 15aren
 eguerdiko hamabiak baino lehen.

Aurkeztu beharreko aginak: Baldintza ekonomiko-adminis-
 tratiboaren pleguan agertzen direnak. Baldintza ekonomiko
 administratiboaren plegua eta obraren memoria Leitzeko Uda-
 letxearen Idazkaritzan daude lizitatzaileen eskura, azter di-
 taten. Lizitazio-espediente honen iragarkiek sortutako gas-
 tuak adjudikatarioaren kargu izanen dira.

Leitzan, 1999ko abuztuaren 25ean,
 ALKATEA, Tomás Azpiroz

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloikak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu
 batean eginen dizugu;
 zure gustora diseinatu,
 inprenta desberdinekin
 preziorik hoberena
 negoziatu eta listo!
 Deitu lasai, eskatu
 aurrekontua eta ikusiko
 duzula!

☎ 948 63 11 88

ttipi-ttapa

telebista

Irailaren

20an

programazio berria

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobra zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobra bat eta helbidea bidali.




Sara Maritzalar Salaberri 3 urte bete ditu abuztuaren 5ean. Zorionak ama, atxa eta Agurneren partetik.



Markel Telletxea Iraola igantziarrak abuztuaren 2an 4 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.



Jokin Bengoetxea Olaetxea lesakarrak 5 urte bete ditu abuztuaren 20an. Muxu bat Lesaka eta Elizondoko familien partetik.



Samain Alvarez Goñi labaidarrak irailaren 2an 7 urte bete ditu. Zorionak zure familiaren partetik. Muxu haundi bat.



Irati Anzizar iruindarrak abuztuaren 5ean bete du urte bat. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Uxue Anzizar Irazokik urtea beteko du abuztuaren 1ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Oronzoko **Ganix eta Garazi Inziarte Ariztegi** abuztuaren 3 eta Sean lau eta urte bat bete dituzte. Auniz urtez eta muxu haundi bat! Amatto eta aitaxoren partetik.



Merte Antizar lesakarrak abuztuaren 7an bete ditu urteak. Zorionak Mikel semearen eta Lesakako bi familien partetik.



Nieves Iriarte lesakarrak abuztuaren 5ean bete ditu urteak. Zorionak Ameriketako bi anaien, seme-alaben eta iloben partetik.



Mikel Agerre Iparragirre igantziarrak abuztuaren 9an 3 urte bete ditu. Zorionak familiaren eta Marixuren partetik.



Igone Iribarren Mindedgia doneztebarrak abuztuaren 31n bete du 12 urte. Osaba, Izeba eta Ibairen partetik.



Ixtasne Eizagirre Zubieta irundarrak irailaren 8an 5 urte beteko ditu. Zorionak zure familiaren partetik. Muxu haundi dut.



Joseba eta Julen Jauregi Arozena amaiurtarrek 6 urte beteko dituzte abuztuaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik. Aupa Potokos!



Loinaz Iribarren Bertiz excalartarrak 11 urte bete ditu abuztuaren 18an. Zorionak aita-ama, ahizpa eta familiaren partetik.



Iñigo Urkizu Albistur eta Unai Urkizu Albistur goizuetarrek 5 eta lau urte bete dituzte berriki. Zorionak eta muxu bana Goizuetako familiaren partetik.



Iñaki Etegarai Migeltorena leiztarrak uztailaren 31n bete ditu 13 urte. Zorionak aita, ama eta anaiaren partetik.



Ainhoa Billabona Zabalo leiztarrak 14 urte bete dituen abuztuaren 18an. Zorionak eta muxu bat kuadrilaren partetik.



Urdazubiko **Jone Bonnemaison** 14 urte bete ditu abuztuaren 5ean. Zerbitaitara gonbidatuko gaituzue, ezta? Zure lagunak.



Lurdes Otxoteko Burlatarrak abuztuaren 20an urteak bete ditu. Auniz urtez exekoen partetik.



Irati Urreaga Burlatarrak abuztuaren 26an 9 urte bete ditu. Zorionak eta musu haundi bat exekoen partetik.



Ibai Igarabide Iparragirre erratzuarrak 7 urte bete ditu abuztuaren 10ean. Zorionak eta muxu haundi bat Arantzako familiaren partetik.



Arrasateko **Leire Ortuosteri** zorionak bere 21. urtebetetzean. Nahiz eta ez iduri urte horiek dituzula, badaezpada zaindu. Ai, Jo, Xa.



Berroetako **Pantxok** urteak bete ditu abuztuaren 30ean. Zorionak familiaren guztiaren partetik.



Irati Urreaga Otxoteko lesakarrak 9 urte bete ditu abuztuaren 26an. Aupa nere sorgintxo. Muxuak. Leska.



Maribel irundarrak eta M Jesus lesakarrak abuztuaren 27an bete dituzte urteak. Zorionak laneko lagunren partetik.



Ainhoa Lanz beratarrek abuztuaren 19an urteak bete ditu. Kontuz donuts-ekin. Zorionak familiaren, eta batez ere, Eneritzen partetik.



Idioia Arregi Azpiroz Irungo Izarok lau urte beteko ditu irailaren 14an. Zorionak lehengusua Asier, Ubedi eta Amaiaen partetik.



Iratx Apeztebea Lujanbio goizuetarrak 4 urte bete ditu irailaren 4an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Dabid Suarez Del Moral elizondarrak urtea bete du abuztuaren 31n. Zorionak familia guztiaren partetik, eta berexiki Asierren partetik.



Javier eta Josune Gago Balda doneztebarrak 8 eta 6 urte bete dituzte abuztuaren 30ean eta irailaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat aita eta amaren partetik.



Maria Jesus Larretxea lesakarrak urteak bete ditu abuztuaren 27an. Zorionak Lesakako lagunren partetik.



Xabier Iparragirre zorionak irailaren 16an urteak beteko dituelako. Muxu bat Luis, Josune eta Aitorxoren partetik.



Jon Iparragirre Olasagasti excalartarrak urtea bete du irailaren 1ean. Zorionak eta muxu haundi bat atxa, ama eta Beñaten partetik.



Maite Aiestaran Otxoteko lesakarrak abuztuaren 26an 5 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



Alazne Irueta doneztebarrak irailaren 6an bete ditu urteak. Zorionak aitaren partetik.



Joseba Bergara arantzarrak abuztuaren 27an bete ditu urteak. Zorionak lehengusua Aitziberren partetik.



Esther eta Faustino irailaren 21ean 25 urte beteko dituzte ezkondurik. Auniz urtez! Zuen alaba.



Pello Telletxea Igoa lesakarrak urtea eginen du irailaren 1ean. Zorionak familiaren partetik.



Juan Luis Olhagarai Arriadak 8 urte bete ditu abuztuaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Miren Etxepetelu lesakarrak 4 urte bete ditu irailaren 6an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Anjel igantziarrari: auniz urtez buruilairen 3an urtik bete tzeagatik. Hainbertze bueltakin, azkenin, botakuk abiona putzura! A ze bazka tiburonak! Kuadrila.



Joxelu igantziarra: auniz urtez abuztuaren 24an urtik bete ttukelkoz PP. Noizko helikopterrua? Altxazak horrek baliyo dikena, ta dirukin gonbiuziuk afaltzera!



Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
Tfnoa. eta faxa: (948) 45 32 59

4 arrazoi on PVC jartzeko



Kalefakzioan
% 35a
ahorratzen
duzu



ISOLAMENDUA



Ez du
pintura
beharrik



MANTENU ERREXA



Ur eta
halzeaz
babesteke,
balta ere
soluetatik



HERMETIKOTASUNA



Denborak
ez du alda-
razten



IRAUNKORTASUNA

*Etxe berrietan eta
zaharretan. Edozein
itxiera, kaleria,
leiho, atari...*

*Eskatu aurrekontua
konpromezurik gabe*



BETIKON kolore
ugari ditugu,
baita egur
koloreak ere
(haritza, kaoba,
pinua...).
Edozein
etxe estilora
egokitzen
direnak.



Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu

Kukubiltxo



Kukubiltxo Taldea

'KUKUBEL'

NON: Lesakako frontoian

NOIZ: Irailaren 12a, igandea

ORDUA: Arratsaldeko 6etan

ANTOLATZAILEAK:



BORTZIRIETAKO EUSKARA
MANKOMUNIDADEA



Nafarroako
Gobernua

Hizkuntza Politikarako
Zuzendaritza Nagusia

SARRERA DOHAINIK


**II CERTAMEN
INTERNACIONAL
DE CORTOMETRAJES
DEL PAIS DEL BIDASOA**

**BIDASOAKO FILME
LABURREN**

2. ZINEMALDIA

**Irailaren 6tik 9ra
filme guziak
Berako Kultur
Etxean eta
Doneztebeko
Zineman ikusgai,
arratsaldeko
8etan**

**Bera, Doneztebe, Irun, Hendaya
Del 6 al 18 de Septiembre
Irailak 6tik 18ra**



**SARI BANAKETA:
Irailaren 18an Beran**